Dena dela, lege preskripzio horiek ez dira ingurumen ebaluazioa egitean kontuan hartzen diren bakarrak. Ikerketa eremuaren azterlan zehatzari esker, ingurumen baliabiderik baliagarrienak identifika daitezke, bai eta zehaztu ere zeintzuk diren zainketa, hauskortasun, berezitasun edo babes bereziaren aldetik garrantzirik handieneko eremuak. Horrela, proposatutako jarduketa bakoitza dagokion eremuaren barruan ingurumenaren aldetik aztertzeak berariazko baldintzak sortzen ditu; baldintzok III. Plan Zuzentzailearen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan jaso eta garatzen dira.



9. ERREPIDE SAREAREN EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

9.1. SAREAREN SAILKAPENA ETA KATALOGO BERRIA

Nafarroako Foru Komunitateko Errepide Sarea, 2009. urtearen hasieran, 3.921,62 kilometrok osatzen zuten;

honela banatzen ziren, bi talde handi hauetan: 373,03 kilometro edukiera handiko errepideetan, eta 3.548,59 kilometro errepide arruntetan. Taula honetan, sare motak biltzen dira, bai eta bakoitzaren luzera eta sare osoa kontuan hartuta duen portzentajea ere.

Errepide mota	Luzera (km)	%
AUTOPISTAK	111,95	2,85
AUTOBIDEAK	197,42	5,03
BIKOIZTUTAKO BIDEAK	23,78	0,61
PRESTAZIO HANDIKO ERREPIDEAK	39,88	1,02
AHALMEN HANDIKO BIDEAK, GUZTIRA	373,03	9,51
INTERES OROKORREKO ERREPIDEAK	270,28	6,89
FORU KOMUNITATEKO INTERESEKO ERREPIDEAK	1.036,36	26,43
TOKIKO ERREPIDEAK	2.241,95	57,17
ERREPIDE ARRUNTAK, GUZTIRA	3.548,59	90,49
NAFARROAKO ERREPIDE SAREA, GUZTIRA	3.921,62	100,00

Egungo egoeraren azterlana burutzeko, sarearen segmentazio dinamikoa egin da maila guztietan, autobide eta autobia mailan zein toki sarean. Prozesu horrek aukera ematen du ikerketa tartetarako aldatzeko analisirako erabilitako parametroaren beharren arabera. Horrela, tarte finakoak gaintitu egiten dira; izan ere, horiek finko mantentzen ziren, aztertu beharreko ezaugarria aintzat hartu gabe.

Tresna horri esker zehaztu ahal izan da zein den errepide bakoitzaren egungo egoera, bai eta zein diren bakoitzaren gabeziak eta gutxieneko kalitate estandarrak lortzeko esku-hartze premiak ere.

9.2. SAREAREN EGOERA BERRIA

Errepide sarearen sailkapena aldatu eta onetsi zen, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen bidez. Lege horrek baliogabetu egin zuen sarearen aurreko sailkapena, bost kategoriakoa (autobideak eta autobiak, sare orokorra, Foru Komunitatearen intereseko errepideen sarea, eskualdeko sarea eta tokiko sarea) eta zazpi kategoria berri ezarri, ezaugarri hauekin:

Autobideak

- Galtzada desberdinak dituzte, zirkulazioaren norabide bakoitzeko bat, zirkulaziorako ez den lur

zerrenda batek bereziak, salbu eta zati berezietan edo aldi baterako.

- Ez dute maila bereko bidegurutzerik beste komunikazio bide batekin edo bide zortasun batekin, ezta oinezkoen pasabideekin, bidegorriekin, trenbideekin edo bestelako azpiegiturekin ere.

- Ondasun mugakideek ez dute sarbide zuzenik bertara.

- Bi aldeetan hesiturik daude, luzera osoan.

- Azpiegiturara sartzeko kontrola dute. Mota honetan bidesaririk gabeko autobide tartetarako sarturik daude.

Autobiak

- Galtzada desberdinak dituzte norabide bakoitzeko, luzeran ezarritako elementu fisikoen bidez edo zirkulaziorako ez den lur zerrenda batez bereziak, salbu eta tarte berezietan edo aldi baterako.

- Ez dute maila bereko bidegurutzerik beste komunikazio bide batekin edo bide zortasun batekin, ezta oinezkoen pasabideekin, bidegorriekin, trenbideekin edo bestelako azpiegiturekin ere.

- Ondasun mugakideek sarbide mugatua dute bertara.

- Bi aldeetan hesiturik daude, luzera osoan.

Bide bikoiztuak.

Ondoko baldintzak betetzen dituzten errepideak dira, gehienetan hiri barnekoak:

- Galtzada desberdinak dituzte norabide bakoitzeko, hiri-erdibitzaile batez, zirkulaziorako ez den lur zerrenda batez edo luzeran ezarritako elementu fisikoez bereziak, salbu eta tarte berezietan edo aldi baterako.

- Elkarguneak gehienbat maila berekoak dira, biribilgune itxurakoak.

- Maila bereko bidegurutzak izan ahal dituzte, oinezkoentzako pasabideekin edo bidegorriekin, salbu eta bide segurtasuneko arrazoiengatik maila desberdineko bidegurutzak justifikaturik daude.

- Ondasun mugakideek sarbide mugatua dute bertara.

- Luzetarako hesirik gabe, tarte berezietan salbu.

- Alboetan hiri integrazioko elementuak izan ditzakete.

Prestazio handiko errepideak

- Zirkulazio norabide bikoitza galtzada bakarrean; trafikoa bi norabideak bereizteko elementuak paratu daitezke.

- Trazaduraren luzeraren zati nabarmen batean hirugarren lerroa dute, aurreratzeak errazteko; laugarren lerroa ere izan dezakete goitik beherako malda handietan, ibilgailu astunentzat.

- Beste errepideekiko elkarguneak maila desberdineko lotuneen bidez eginen dira, ahal den neurrian.

- Ondasun mugakideetatik zuzeneko sarbideak mugaturik egonen dira hein batean.

- Luzetarako hesirik gabe, tarte berezietan salbu.

Interes orokorreko errepideak.

Autonomia erkidegoen arteko edo nazioarteko ibilbideak osatzen dituztenak dira, trafiko bolumen nabarmenarekin.

Foru Komunitatearen intereseko errepideak.

Interes orokorrekoak izan gabe Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea barnetik egituratzen dutenak dira, bai eta mugakide diren autonomia erkidegoekiko edo erregioekiko lotune direnak ere.

Tokiko sarea.

Komunikazioen sare kapilarra osatzen dutenak dira, maila altuagoko errepideen eta populazioaguneetako sarbideen arteko loturarako bide emanez, baita Nafarroako Foru Komunitatearen mugakide diren lurraldeekin egituratzen duten loturarako ere.

Lehendabiziko lau sareek Edukiera Handiko Bideak deitutako multzoa osatzen dute, eta interes orokorreko errepideak, Foru komunitatearen interesekoak eta tokiko sarekoak, berriz, errepide arruntak dira eta ezaugarri hauek dituzte, aipatutako foru legearen arabera:

- Zirkulazio norabide bikoitza galtzada bakarrean.

- Beste errepide arruntetikiko elkarguneak maila berean izanen dira, ahal dela.

- Ondasun mugakideetatik sarbideak ez daude mugaturik, baina bide segurtasunari eta errepideen diseinuari buruzko araudian ezarritakoa bete behar da.


- Ez dago luzetarako hesirik.


Sailkapen berriak ez du funtsean aldatzen aurreragokoa, bost sare bereizten zituena. Biak alderatuta, aldaketa handienak bide bikoiztuetan eta prestazio handiko errepideetan daude.

Bide bikoiztuak Iruñeko sarbideak dira, bai ingurabideak bai hegoaldeko nahiz mendebaldeko sarbideak.

Prestazio handiko errepideen kategorian sartuta dagoen errepide bakarra N-121A da, Iruñetik Behobiara artekoa, maldetan hiru lerro dituena.

Lehen eskualdeko sarean sartutako errepideak tokiko sarean sartu dira orain, eta batez ere Foru komunitatearen intereseko sarean.






9.3. SAREAREN EZAUGARRI GEOMETRIKOAK


2008an Nafarroako Errepideen Sareko Inbentario Geometriko berria egin da, II. Plan Zuzentzailean bildutako jarduketak bete ondoren sareak izan diren ezaugarriak, batetik, eta bestetik errepideko sarearen geometriari buruzko oinarriko datuak eguneratzeko, eta horrekin batera katalogo berriaren arabera izenak ere egokitzeko.


Ustiapenetik abiatuta, foru sarearen datu geometriko nagusiak jasota dauden erregistroak aztertutik, eta tarte homogeneoetan gehituta, sarearen egoera aztertzeko modua izan dugu, kontuan har-


tuta galtzadaren eta plataformen zabalera, bazterbideak dauden ala ez, kurbadura-erradioak eta maldak eta III. Errepide Plan honetan sartu beharreko jarduketa premiak zehazteko interesekoak diren beste zenbait parametro.

Lortutako emaitzetan oinarrituta, eta trafikoari buruz egindako azterlanaren ondorioz –hurrengo atalean jaso da-, bideen gaur egungo eskaintza EIE (Eguneko Intentsitate Ertaina) delakoak zehaztutako eskaerarekin bat datorren aztertu ahal izan da, zerbitzu mailak eta hortik etorritako edukietara arazoak.









9.4. TRAFIKOAREN EBOLUZIOA 2000-2008

9.4.1. Egungo egoera

Nafarroako Foru Komunitateko errepideen sareko trafikoaren egungo egoera eta bilakaera aztertzeko, 2000. urtetik 2007. urtera bitarteko neurketen datuak prozesatu dira. Eguneko batez besteko intentsitateak (EBE) Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiko Zainketa Zerbitzuko Bide Segurtasunaren eta Kontrol Zentroaren Atalak argitaratzen dituen Trafikoaren eta Istripuen urtekarietatik hartu dira.

Intentsitateak esleitzeko, Bide Segurtasunaren eta Kontrol Zentroaren Ataleko Neurketa Bulegoak argitaratutako 2007ko Trafiko Neurketen planoan jasotako tarteak hartu dira oinarritzat.

Egoeraren azterketa sareen arabera egin da, bide garrantzitsuenena bereziki, eta ibilbideen arabera, lehentasuna emanez zirkulazio intentsitate handiena dutenei, trafiko aldaketa handiak izan dituztenei edo eraiki diren azpiegitura berriak direla-eta aldaketak izan dituztenei.

Sarean, oro har, trafiko karga ez da oso handia. Errepideen %40 baino gehiagotan, eguneko intentsitateak 1.000 ibilgailutik beherakoak dira, eta %11,6tan baino ez dira 10.000 ibilgailutik gorakoak eguneko.

Halere, banaketa ez da denetan berdina. Prestazio geometriko eta edukiera handieneko sareek (edukiera handiko bideak) dituzte 10.000 ibilgailutik gorako egueko intentsitate gehienak, bai eta 4.000 ibilgailutik gorakoak ere. Errepide arruntetako ibilbideetan, ordea, eguneko ibilgailu kopurua gutxitan izaten da 4.000 ibilgailutik gorakoa.

Pauta hori areagotzen joaten da tokiko sarera hurbildu ahala, hau da baldintza geometriko eta edukiera mugatuenak dituenen, eta sarearen ea hiru laurdenetan eguneko batez besteko intentsitatea 1.000 ibilgailutik beherakoa baita.

Azterketa horretarako nahiz ondoren, sare eta ibilbide bakoitzerako azaltzen direnak egiteko erabilgarri dugun azken neurketaren datuak erabili dira, 2007koak alegia.

Autobideak

Autobideen sarean AP-15 (Nafarroako Autobidea) eta A-15 (Iruñeko Mendebaldeko Ingurabidea) baizik ez daude sartuta. Ibilbide jarraia osatzen dute biek, erkidegoaren hegoaldeko muturretik, AP-68tik, Irurtzuneraino, Iruñean barna, bertan A-15 AP-15aren bi tarteen artean txertatzen da, Nafarroako hiriburuko mendebaldeko ingurabidea izateko.

Batez besteko intentsitate handienak ingurabidearen tarte horretan gertatzen dira, bertatik, 2007an ia 40.000 ibilgailu igaro baitziren egunean zenbait estazioren neurketaren arabera, eta batez bestekoa 20.000 ibilgailutik gorakoa izan zen A-15 osoan. AP-15 autobidean trafikoak gora egiten du, eta intentsitateak txikiagoak dira hasieran, AP-68arekiko loturan, 5.000 ibilgailu eguneko, Noainen, A-21 autobiarekin bat egiten duen tokian baino, bertan batez besteko intentsitatea ia 60.000 ibilgailukoa baita eguneko. A-15eko osatzen duen Iruñeko Mendebaldeko Ingurabidea behin igarota, intentsitateak behera egiten du, baina 25.000tik 30.000 ibilgailura bitartekoa da beti, Irurtzuneraino, hau da, amaitu eta rA-10 eta A-15 bereizten diren tokiraino.

AP-68 autobidea, ez da Foru komunitateko errepideen katalogoan sartzen Estatuaren eskumenekoa delako.

Autobiak

Nafarroako Foru Komunitatean sei autobia daude: A-1 (Iparraldeko autobia), A-10 (Sakanako autobia), A-12 (Done Jakue bidearen autobia), A-15 (Leitzarango autobia), A-21 (Pirinioetako autobia) eta A-68 (Ebroren autobia).

Intentsitate handienak A-1ean gertatzen dira, Arabarekiko mugatik A-10arekin Altsasun gurutzatzen den tokiraino, egunean 25.000 ibilgailutik gora ibiltzen baitira tarte horretan. A-10ean, intentsitateak txikiagoak dira baina handiak guztiarekin ere, 15.000tik 20.000 ibilgailura bitarteko trafikoarekin eguneko ibilbide osoan.

A-12 autobiak zirkulazio intentsitate txikiagoa du Logroñora hurbildu ahala. Iruñea inguruan trafikoak 20.000 ibilgailutik gorakoa da eguneko, baina azken tartetan, Errioxarekiko mugatik hurbil, 6.000 ibilgailutik beherakoa da.

Beste hiru autobietan trafiko kopuru berdintsuak daude ibilbide osoan, 10.000tik 20.000 ibilgailura bitartekoa, ibilbidearen arabera. Karga handiena duena Ebro ibaiaren ondo-ondotik doana da (A-68), egunean 18.000 ibilgailutik gora igarotzen baita bertatik batez beste, eta Pirinioetako Autobian (A-21), eginik dagoen tartean, berriz, 10.000 ibilgailu pasakoa da. A-15 autobia, Irurtzundik probintziako mugaraino, aurreko bien artean dago, eta bertako zirkulazio kopurua 15.000 ibilgailu ingurukoa da egunean.

Bide bikoiztuak

Sailkapenaren arabera bide bikoiztuak direnak, PA-30, PA-31 eta PA-34, Iruñeko ingurabidearen parte dira, batez ere ekialdeko ingurabidearena

(PA-30 eta PA-31) eta iparraldeko ingurabidearena (PA-43).

Haietan guztietan erregistratzen diren intentsitateak handiak dira, hiri inguruneetan ohikoak. Eki-aldeko ingurabideko (PA-30) zenbait tokitan, 40.000 ibilgailutik gora erregistratzen dira egunean, eta PA-31n egunean 54.000 ibilgailu ere erregistratzen dira.

Ingurabidearen iparraldeko tartean, PA-34k intentsitate irregularragoak ditu, egunean 10.000tik 25.000 ibilgailura bitartekoak.

Prestazio handiko errepideak

Sailkapen honen barruan iruñetik Behobiara doan N-121A errepidea baizik ez dago. Trazadura zehar dauden neurketa estazioetan erregistratutako intentsitateak 5.000tik 10.000 ibilgailura bitartekoak dira egunean. Dentsitate handienak hasierako eta amaierako tartean daude, Iruña inguruetan eta Behobia eta Irungo hiri-bilbean. Ibilbidearen erdialdean intentsitateak txikiagoak dira, baina beti 5.000 ibilgailutik gorakoak egunean.

Interes orokorreko errepideak

Interes orokorreko errepideen sareak 301,16 kilometro ditu, hamahiru bidetan banatuta. Bide horietatik zazpi tartek baizik ez dute nolabaiteko garrantzia, eta gainerakoak saihebidetako tartek, hiri ingurabideak edo errepide arruntak dira, bikoizketa bat edo trazadura aldaketa bat egin ondoren sortutakoak.

Sare osoko intentsitate handienak Iruña-Tutera errepidean (N-121) gertatzen dira, ia 20.000 ibilgailu igarotzen baitira bertatik egunean zenbait tartetan, eta N-232 errepidea (Alfaro-Tutera-Zaragoza), egunean 15.000 ibilgailu baino gehiagorekin.

Hiri ingurabideetan edo populazioguneetako saihebidetean, zenbait tartetan, intentsitate handiak daude, 20.000 ibilgailu inguru egunean. Hala gertatzen da PA-32 eta PA-33 bideetan.

Interes orokorreko errepide gehienetan intentsitatea 4.000tik 10.000 ibilgailura bitartekoa da egunean. Zehazki, sareak dituen 268,5 kilometroetatik 121,3 kilometrotan halakoa da intentsitatea, hau da, %45,2an. Zirkulazioko intentsitate txikiagoa duten errepideak (egunean 4.000 ibilgailu baino gutxiago) hauek dira: Iruña-Frantzia (Luzaiden barna) N-135 errepidea, Iruña-Frantzia (Baztanen barna) N-121B errepidea, biak mendiko errepideak, eta beste errepide batzuetako tarte batzuk, N-240 errepidearen amaierakoa adibidez, Zaragozako mugara iritsi aurretik.

Foru Komunitatearen intereseko errepideak

Foru Komunitatearen intereseko sareak aurreko sareek utzitako hutsuneak hartzen ditu bere baitan, eta bertako intentsitateak, egunean, 4.000 ibilgailutik beherakoak dira sare ia osoan (%90,3). Sarearen heren batean (%33,8) eguneko intentsitatea 1.000 ibilgailutik beherakoa da.

Sare honen banaketa geografikoak ezaugarri zehatzak ditu. Oro har, intentsitate handieneko errepideak Foru Komunitatearen hegoaldean daude, Ebroren korridorearen eta ondoko populazioguneen inguruetan, batez ere Tuteran. Lizarratik Andosillara doan NA-122 errepidea eta NA-134 (Ebroren ardatza) nabarmentzen dira, eta azken horretan eguneko intentsitatea 9.000 ibilgailu ingurukoa da.

Intentsitate txikiak dituzten errepideak, berriz, probintzia osoan banatuta daude, baina iparraldean, Pirinioen inguruan, handixeagoa dela ikusten da.

Tokiko errepideak

Tokiko sareak Foru Komunitateko errepide sarearen zatirik handiena osatzen du, zehazki guztira dituen 2.748 kilometroetatik 1.016,1 ditu. Eta mila kilometro horietatik hirurogeita hamarretan baizik ez dago 2.000 ibilgailutik gorako intentsitatea egunean. Gainerakoetan, hiru laurdenetan 1.000 ibilgailutik beherako intentsitatea erregistratzen da eguneko.

9.4.2. Trafikoaren bilakaera

Nafarroako Foru Komunitateko errepideen sareko trafikoaren bilakaeraren azterketa Zainketa Zerbitzuko Bide Segurtasunaren eta Kontrol Zentroaren Atalak argitaratzen dituen neurketetatik abiatuta egin da. Ahal izan delarik, hazkunde tasak kalkulatzeko erreferentziako serietako 2000tik 2008ra bitarteko aldia erabili da. Serie osoa eskura izan ezan edo 2000. urtean zerbitzuan ez zegoen errepideen kasuan, ahalik eta serie luzeena erabili da, trafikoaren urteko hazkundeari buruzko balio fidagarria edukitzearren.

9.4.3. Trafikoaren bilakaera sare motaren arabera

Autobideak

Nafarroako autobideetan gertatutako hazkundera moderatua izan da. A-15aren zenbait tokitan baizik ez da izan %5etik gorakoa (handiena %5,4koa). Gainerako tartean hazkundeak %3tik %5era bitartekoak izan dira, baita txikiagoak ere.

Autobiak

Done Jakue bideko autobiako (A-12) tarte gehienetan hazkunde nabarmena gertatu da 2005etik (erregistroak dauden aurreneko urtea) 2007ra. Hazkundeak %10etik gorakoak izan dira, eta zenbait tokitan %20koak ere.

Gainerako autobietan hazkunde txikiagoa izan da. A-69an (Ebroko autobia) hazkundeak %4,5etik %7ra bitartekoa izan da, tokien arabera. A-1ean ere handia izan da hazkundeak, aurrekoa baino txikiagoa nolana ere (%4-5).

Hazkunde txikiena Leitزارango autobian gertatu da (A-15), %1etik gorakoa besterik ez.

Bide bikoiztuak

Iruñeko Ingurabidean, hazkunde handienak PA-30ari dagokion tartean gertatu dira, %10aren ingurukoak, baina, zenbait tokitan %15etik gorakoak dira. Gainerako tartetan hazkunde moderatua da, eta ez da %5etik gorakoa.

Prestazio handiko errepideak

Iruñetik Behobiara doan N-121A errepidean, hazkunde tasak konstanteak dira ibilbide osoan, %4 ingurukoak.

Interes orokorreko errepideak

Interes orokorreko errepideen sarean, hazkundeak moderatua dira edukiera handiagoko sareetan baino. N-113 (Iruña-Madril) eta N-240 errepideetako bi tokitan besterik ez dira gertatu %5etik gorako hazkundeak (handiena %6,1ekoa). Errepide gehienetan %3tik beherako hazkundeak izan dira eta kasu batzuetan jaitsierak, N-121B (%-1,2), N-135 (%-0,1) eta N-240A (%-0,9) errepideetako zenbait estazioetan.

Foru Komunitatearen intereseko errepideak

Foru Komunitatearen Intereseko Sareko errepide guztietan hazkundeak ez da berdina izan. Bosten batean, gutxi gorabehera, %7tik gorako hazkundeak izan dira, eta haietan nabarmendu da NA-700, 2000. urtean egunean 761 ibilgailuko intentsitatea izatetik 2007an 2.180 ibilgailuko izatera iragan baita, hau da, %16,2ko hazkunde izan du.

Sarearen beste bosten batean zirkulazioaren intentsitatea jaitsi egin da azken urteetan. NA-112 errepidean jaitsiera ikusgarria gertatu da 2006tik hona, batzuetan %46koa. Jaitsiera A-12 zerbitzuan jarri zenean hasi zen, eta beraz pentsa daiteke ibilbide luzeko trafikoa autobideak bereganatu duela. Sareko gainerako errepideetan hazkundeak apalak dira, %5etik beherakoak.

Tokiko errepideak

Tokiko sarea osorik hartuta, 90,31 kilometrotan baizik ez dira gertatu %7tik gorako hazkundeak, eta 138,55 kilometrotan, berriz, %7tik %5era bitartekoak, hau da, guztiaren %24,3 besterik ez. Gainerako errepideetan ez da gertatu portzentaia edo kopurutan garrantzikoa den hazkunde edo jaitsierarik.

9.4.4. Trafikoaren bilakaera korridoreen araberaIruña-Behobia korridorea (N-121A)

N-121A errepideak egiten duen ibilbidea, Iruña-Behobia, Iruñetik iparralderantz doa, Gipuzkoa eta Frantzia arteko mugaraino. Nafarroako lurralde atlantikoa Gipuzkoarekin eta Frantziarekin lotzen ditu.

Orografia dela eta, maldetan aurreratzea erraztuko duten hirugarren lerroak gehituz zabaltzeko hautua egin da. Nolanahi ere, azken urteetan izandako hazkundeak apala izan da, %4 ingurukoak tarte gehienetan; trafiko handieneko tartean, 2000. urtean egunean 7.831 ibilgailu izatetik 2007an 10.562 izatera igaro da.

Iruña-Frantzia korridorea, Luzaiden barna (N-135)

Iruña-Frantzia (Luzaide) N-135 errepideak Nafarroako hiriburua eta Foru Komunitateko ekialdean dauden Pirinioetako haranak elkar lotzen ditu. Trafiko gutxiko bidea da, 4.000 ibilgailu baino gutxiagokoa eguneko, eta ez du hazkunde handirik izan azken urteotan.

Iruña-Huesca korridorea (A-21 eta N-240)

Iruña eta Huesca arteko ibilbidea Pirinioetako autobian (A-21) eta N-240 errepidean barna egiten da, Foru Komunitateko ekialderantz doan berezko korridorea osatuz.

Trafikoaren hazkunde handiagoa izan da A-21 errepideari dagokion tartean (%5,4) N-240 errepidean baino (%3,4) baina ez da oso handia izan 2000tik hona.

Iruña-Castejón-Soria korridorea (AP-15, N-121 eta N-113)

Iruña-Castejón-Soria korridoreak probintziako hegoaldea antolatzen du, Iruña eta Ebroko erribera eta Tuteran aldea lotuz. AP-15 autobideak Iruña eta AP-68 lotzen ditu, eta N-121 errepidea autobidearen parez pare doa AP-68raino, bertan N-113 izena hartu eta jarraitzeko Foru Komunitatea eta Soria arteko mugaraino.

Korridore osoak zeharka lotzen ditu Ebro inguruak, AP-68 Autobidea eta A-68 Autobia, paraleloa Tuterako tartean.

Trafikoen bilakaera ez da homogenea izan korridoreko bide guztietan. AP-15 autobidean hazkunde apalak gertatu dira, %3,5etik %5era bitartekoak, baina N-121 errepidean, ordea, hazkundea %20koa izan da zenbait tokitan, eta %23ra ere iritsi da batzuetan. N-113 errepidean trafikoaren gehikuntza handiagoa izan da, gehienez ere %40 ingurukoa eta beti %20tik gorakoa. Hazkunde erlatiboa oso handia da, baina kopurutan ez da hainbesteko izan, N-113 errepidean erregistratutako gehieneko intentsitatea, egunekoa, 6.500 ibilgailukoa izan da.

Tutera-Tarazona korridorea (N-121C)

N-121C errepidean barna Tutera eta Tarazona lotzen dituen tartean hazkundea konstantea izan da, %3,3tik %4,6ra bitartekoa, 2000tik 2007ra. Intentsitate handieneko tartean trafikoen bilakaera hauxe izan da: egunean 6.731 ibilgailukoa izatetik 8.420 ibilgailukoa izatera.

Ebroko korridorea (A-68)

Ebroren parez pare doaz AP-68 autobidea eta A-68 autobia. A-68 autobian trafiko hazkundeak oso handiak izan dira, bai kopurutan bai ehunekoetan. Eguneko 12.000 ibilgailu inguruko trafikoak izatetik 2000. urtean ia 20.000koa izatera igaro da, gehienez ere %7ko hazkunde beraz.

AP-68 autobidea ez dago sartuta Foru Komunitateko errepideen sarean, Estatuaren eskumenekoa delako.

Iruña-Logroño korridorea (A-12, NA-112)

A-12 autobiak eta NA-112 errepideak Iruñetik Logroñora doan korridorea osatzen dute, abiapuntua hiriburuan duen eskema erradialari jarraipena emateko.

Autobian trafiko hazkunde nabarmenak gertatu dira, %15 ingurukoak (batez beste), baina ia %20koak ere, egunean 22.000 ibilgailutik 6.000 ibilgailura bitarteko trafikoekin Logroñotik hurbilen dauden tartetan.

NA-112 errepidean kontrakoa gertatu da. Trafikoak %46 gutxiti dira, autobiak bereganatu dituelako ibilbide ertain eta luzeak.

Iruña-Altsasu korridorea (AP-15 eta A-10)

Iruñetik Altsasura bitarteko ibilbideak Foru Komunitateko mendebaldea antolatzen du, eta hiriburua eta EAE lotzen ditu. Lehen tarte AP-15 autobidean barna egiten da Irurtzuneraino; bertan hasten da A-10 autobia probintziako mugaraino.

Trafikoak hazkunde apala izan du lehen tartean (AP-15), %5etik beherako hazkundeekin tarte guztietan. A-10ean hazkundeak are txikiago izan da, %3tik beherakoa, eta egunean 17.000 ibilgailuko kopuruekin.

Irurtzun-Donostia korridorea (A-15)

AP-15 autobidearen amaieran, Irurtzunen, Donostiarekin lotzen duen A-15aren adarra hasten da. Trafikoaren bilakaera oso irregularra izan da ibilbide honetan. Tarte batzuetan ez da ia hazkunderik izan, %0,55ekoa, eta beste batzuetan, berriz, %8 baino gehiagokoa; trafikoak homogenea da tarte guztietan (12.000 ibilgailutik 15.000 ibilgailura bitarte eguneko).

Iruñeko ingurabidea eta Iruñean sartzeko bideak

Iruñerriko Sarea ekialdeko ingurabideak (PA-30), iparraldeko ingurabideak (PA-30) eta mendebaldeko ingurabideak (PA-31ren tarteak, PA-34 eta, gehienbat, A-15) osatzen dute.


Guztietan erregistratutako intentsitateak handiak dira, hiri handien inguruetan gertatu ohi den moduan, joan-etorri motzetako trafikoak ibilbide luzekoarekin nahasten baita bertan. Aldakorra da, PA-31ko estazio batean egunean erregistratutako 54.026 ibilgailuen kopurutik PA-30 edo PA-34ren tarte batzuetan erregistratutako 10.000 edo gutxiagoko kopuruetarara.


Trafiko hazkundeak azken urteetan ere irregularrak dira. PA-34 errepideko zenbait tokitan trafikoak konstante iraun du (%0,3ko tasekin), eta PA-30ean berriz %15,1eko hazkunde gertatu da, eta 2007an 41.599 ibilgailuko intentsitatea izan da egunean.

Oro har, %5 inguruko hazkundeak gertatu dira Mendebaldeko Ingurabidean (A-15) eta handixekoak Ekialdeko Ingurabidean (PA-30), baina gorabehera handiagoekin ere (%4,4tik %15,1era).

9.5. ZERBITZU MAILAK

2009ko Inbentarioko datuekin eta lehen aztertutako trafiko datuekin kalkulatzen dira.





9.6. BIDE SEGURTASUNA

Nafarroako Gobernuak bi agiritan zehaztu ditu bide segurtasunaren arloan dituen helburuak: Bide Segurtasunaren Estrategia eta Istripu Trafikoari buruzko 2007ko Datuak. Hauek dira helburuak:


- istripuen kopurua jaitea eta bide segurtasuna sustatzea
- biktimen kopurua erdira murriztea 2010. urtean

Nafarroako Bide Segurtasunaren 2005-2012 urteetarako Estrategiarako agirian, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuak argitaratu-takoan, jaso den bezala.


Errepideen katalogoa aldatu zuen Nafarroako errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeak indarra hartzearen ondorioz, ezin izan da sareak alderatzeko azterlanik egin, eta errepide guztien multzoa hartu da gaitzat.

Azken urteotako trafikoaren bilakaera eta istripuak aztertzean, hobekuntza gertatu dela ikus daiteke, bai istripu kopuruan bai istripuetan hildakoen kopuruan, sarean oro har nahiz haietako bakoitzean. Eguneko batez besteko intentsitatea 1998an 2.858 ibilgailukoa izatetik 3.954 ibilgailukoa izatera pasa da 2007an, hau da, %38,3ko hazkundera gertatu da.

EGUNEKO BATEZ BESTEKO INTENSITATEAREN (ibilgailu/eguneko) eta ZAURITUAK ERAGIN DITUZTEN ISTRUPUEN ARTEKO ERLAZIOA										
URTEA	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
ISTRIPUAK	515	531	463	454	415	428	362	360	253	236
EGUNEKO BATEZ BESTEKO INTENSITATEA	2.858	3.034	3.195	3.325	3.462	3.479	3.649	3.640	3.808	3.954



EGUNEKO BATEZ BESTEKO INTENSITATEAREN (ibilgailu/eguneko) eta HILDAKOAK ERAGIN DITUZTEN ISTRUPUEN ARTEKO ERLAZIOA										
URTEA	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
HILDAKOAK	97	98	99	86	79	70	62	76	42	37
EGUNEKO BATEZ BESTEKO INTENSITATEA	2.858	3.034	3.195	3.325	3.462	3.479	3.649	3.640	3.808	3.954



Trafikoaren kopurua etengabe handitu da 1998az geroztik, baina biktimak eta hildakoak eragin dituzten istripuen kopuruak behera egin du etengabe.

Arrisku eta heriotza indizeen bilakaera ere aztertu da, denbora epe horrexetarako. Hauek dira definizioak:

Arrisku indizea:

$$IP = \frac{NAV \times 10^8}{IMD \times 365 \times L}$$


NAVekin biktimak eragin dituzten istripuen kopurua adierazten da, IMDrekin eguneko batez besteko intentsitatea eta Lrekin tartearen luzera

Heriotza indizea:


$$IM = \frac{VM \times 10^8}{IMD \times 365 \times L}$$

VM, hildakoak; IMD, eguneko batez besteko intentsitatea; L tartearen luzera.

FORU KOMUNITATEAREN ERREPIDEETAKO ARRISKU INDIZEA										
URTEA	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Autopistak eta autobideak	6,2	6,3	6,5	7,3	6,7	6,5	3,8	5,0	4,4	2,9
Bikoiztuak										5,5
Prestazio handikoak										11,4
Interes orokorreko errepideak	23,0	20,3	18,4	15,5	13,4	14,1	13,6	14,4	11,9	7,3
Foru Komunitatearen intereseko errepideak	18,8	26,3	21,8	18,9	20,2	19,3	14,4	16,7	14,6	8,2
Tokiko errepideak	12,2	15,1	10,2	8,8	9,5	8,8	7,2	7,8	4,6	8,7



FORU KOMUNITATEAREN ERREPIDEETAKO HERIOTZA INDIZEA										
URTEA	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Autopistak eta autobideak	1,6	0,9	2,7	1,4	1,5	1,0	0,9	1,0	0,4	0,3
Bikoiztuak										0,4
Prestazio handikoak										0
Interes orokorreko sarea	5,2	5,0	3,7	3,2	2,8	2,7	1,9	3,9	1,3	1,8
Foru Komunitateko intereseko sarea	2,4	4,5	3,8	3,4	3,6	2,3	2,4	2,6	3,1	0,9
Toki sarea	0,5	1,6	1,5	1,6	1,5	1,7	0,9	0,8	1,0	1,1



Bi indizeek beheranzko joera dute 1998az geroztik, unean uneko igoera batzuekin, 2006tik 2007ra bitarte Tokiko Sarean ikus daitekeen bezala. Bide bikoiztuen eta prestazio handiko errepideen serie historikorik ez dago, eta beraz ez dira ageri grafikoetan.

Arrisku indizeak behera egin du orohar errepide guztietan, %68,9 1998tik 2007ra. Heriotza indizeak beste hainbesteko jaitsiera izan du, %76koa denbora epe berean.

Sarez sare aztertuta, indize apalenak, bai arriskuari bai hildakoen kopuruari dagokionez, autobideetan eta autobietan daude, eta atzetik, oso hurbil, tokiko sarean. Beste muturrean daude interes orokorreko sarea eta Foru Komunitatearen intereseko sarea, indize altuago eta antzekoekin. Bi sare horietan, arriskua handiagoa bada ere, istripu eta biktima kopuruak behera egin duela ikusten da, autobide, autobia eta tokiko sarean baino gehiago.

Bide bikoiztuei eta prestazio handiko errepideei buruzko daturik ez dagoenez, ezinezkoa da azken hamarkadako bilakaeraren azterketa egitea.

Ezarritako helburuak (istripuen kopurua jaitsi eta bide segurtasuna sustatzea eta 2010ean biktimen kopurua erdira murriztea) lortzeko Foru Gobernuak ezarritako estrategiaren funtsa da istripu ugariko tartearak eta istripuak gerta daitezkeen tartearak gutxitzea. Esperientzia gisa eta zenbait tarte zehatzetan norabide panelei eta seinaleei eusteko metalezko zutoinen ordeztu beira zuntzez eginezko zutoinak paratuko dira, ibilgailu edo pertsona baten talka gertatzean kalteak txikiagoak direlakoan.

Gaur egun, 8 tartek dute istripu ugariko tartearen kategoria; haietako 7tan seinalizazioa eta balizak hobetzeko lanak aurreikusi dira, aurten egin beharrekoak. Istripu ugariko beste tartearen kasuan, gurutzagune bat birmoldatzeko proiektua bat dago, erredaktatuta, eta lanak 2008rako aurreikusiak.

Motorzaleen istripu ugariko tarteei dagokienez, 3 daude jasota katalogoan, eta bertan segurtasun hesiak ezarriko dira.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 12a

53-2. ZK.

A U R K I B I D E A

I S A I L A:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Errepideen 2009-2016 urteetako III. Plan Zuzentzailea (2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bi aletan argitaratzen da, 53-1 eta 53-2. zenbakietan).

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Errepideen 2009-2016 urteetako III. Plan Zuzentzailea

AURKIBIDEA 53.2 ZK

10. Egungo egoeraren diagnostia (3. or.).

10.1. Esku-hartzeko premiak zehaztea (3. or.).

11. Foru sarearen eta beste errepide sare batzuen bat egitea (4. or.).

11.1. Administrazio zentralaren planifikazioa (4. or.).

11.2. Autonomia erkidego eta foru diputazio mugakideetako errepide planak (5. or.).

PLANOAK:

- Foru sarearen eta beste errepide sare batzuen bat egitea (9. or.).

12. Foru sarea eta lurralde planeamendua (10. or.).

12.1. Nafarroako lurralde antolamenduko planak (LAP) (10. or.).

12.2. Iruñerriko bide sarearen kasu berezia (13. or.).

PLANOAK:

- Iruñerriko EBIa. E1 kalkulua (17.147 etxebizitza gehiago) (2016) (16. or.).
- Iruñerriko EBIa. E2 kalkulua (36.765 etxebizitza gehiago) (2026) (17. or.).
- Iruñerriko EBIa. E3 kalkulua (36.765 etxebizitza gehiago) (2016) (18. or.).
- Iruñerriko EBIa. E4 kalkulua (58.208 etxebizitza gehiago) (2026) (19. or.).
- Iruñerriko EBIa. E5 kalkulua (E4 Iruñeko super-ingurabidearekin) (20. or.).

13. Jarduketan ezaugarriak (21. or.).

13.1. Diseinurako irizpide teknikoak (21. or.).

13.2. Jarduketa motak (23. or.).

14. Jarduketan proposamena (23. or.).

PLANOAK:

- Sartu beharreko obrak (tokiko sarea kenduta) eta irudi-testuak (24. or.).
- Tokiko sarean sartu beharreko obrak eta irudi-testuak (26. or.).
- Iruñerriari buruzko xehetasunak (28. or.).

Jarduketan deskribapena (29. or.).

15. Errepide plana eta zainketa (38. or.).

15.1. Ohiko zainketa (38. or.).

15.2. Errepideen zainketarako zentro aurreratuak (39. or.).

15.3. Barrutietako zainketa parke bereziak (40. or.).

15.4. Zoruak sendotzea (39. or.).

15.5. Bide segurtasuna (39. or.).

15.6. Zeharbideak eta hitzarmenak (40. or.).

15.7. Errepide sarearen inbentarioak (40. or.).

16. Ingurumen ebaluazio estrategikoa (40. or.).

16.1. Ohar orokorrak (40. or.).

16.2. Tramitazio administratiboa (42. or.).

16.3. Ingurumen ondorioen adierazpenaren edukia (42. or.).

17. Errepideen Plan Zuzentzailearen jarduketak (45. or.).

10. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA

Nafarroako Errepideen Sareari buruz egindako azterketan oinarrituta, egungo egoeraren diagnostikoa eta etorkizuneko egin dira. Hortaz, errepide sarearen tarte bakoitzaren ezaugarriak finkatuta daude adierazle multzo batean, zeinak adierazten baititu tartearen egokitasuna bere funtziorako, garraiorako alegia, eta lurraldeari eta ingurumenari ekartzen dizkien eraginak. Sarearen egungo arazoak ezaugarriak honela sailkatzen dira:

- Errepideetako ibilgarritasun arazoak: ezaugarri geometriko hertsien azterketa, errepide tarte bakoitzerako onargarri diren gutxienekoetatik behera eta sare motaren arabera.

- Trafiko eta mugigarritasun arazoak, zerbitzu maila, butxadurak, ibilgailu astunen zirkulazioa, salgai arriskutsuak, etab.

- Arazo zehatzak hiri tartean, batez ere zehabideetan: zeharkako iragazkortasunaren ondorioak, bat ez etortzea planeamenduekin, etab. Zehatz-mehatz aztertzen da Iruñerriaren kasua.

- Errepidearen beraren arriskuak ekarritako arazoak, istripu ugariko tartean agerian geratzen direnak.

- Lurraldeari emandako irisgarritasunaren homogeneotasun falta, arreta berezia eman ez lruñari, Nafarroako gainerako eskualdeekiko.

- Errepidea ingurumenaren aldetik ingurunearekin eta haren balioekin bat egiteko arazoak.

Lehen atalean beharrak zehazteko modua da egiaztatzea ea egungo errepideek betetzen ote dituzten ezaugarri geometrikoen arloko gutxieneko estandarrak, galtzadaren eta plataformaren zabalera dagokionez. Ezaugarri horiek eta errepideak jasaten duen trafikoarenak, beraz, zerbitzu maila-koek, dagoen premiaren norainokoa zehazteko bide ematen dute.

Hiri tartean eta zehabideetan, arazo berariazkoak xehetasunez aztertzen dira, errepideen sareko tarte nagusien artean esku-hartzeko premia dutenak detektatzeko; esku-hartze hori saihasbidea eraikitzea edo egungo zeharbidea egokitzea izan daiteke.

Arriskugarritasuna tartez tarte aztertzen da, eta istripu ugariko tartean biltzen dira sareko istripuek eragindako beharrak. Arriskugarritasun hori toki zehatz batekoa izan daiteke (bidegurutzea, gurutzagunea...) edo tarte luzeago batean gertatzea, eta kasu horretan arazoak delako tarteko geometriarekin ere loturik egonen dira, bi errepide elkarzatearekin ez eze.

Azkenik, irisgarritasunak, berariaz aztertuta, adierazten digu Nafarroako lurraldearen barruan zein eskualde dauden "urrutiago" Iruñetik, Foru Komunitateko erdigunea den aldetik, nahiz interes orokorreko saretik, prestazio handiko errepideetatik, bide bikoiztuetatik, eta autobia eta autobideetatik.

Natur ingurunearen gaineko eraginaren arazok jarduketa proposamenetatik abiatuta aztertuko dira, egungo sarean dauden ingurumen arazoak ere aztertuz.

Errepidea ingurumenaren ikuspegitik ingurunean txertatzeari dagokionez, erreferentziatzat hartzen da bide sarearen ingurumen ebaluazioa; tartez tarte aztertzen dira beharrak arlo hauetan: habitatak zatikatzea, hondakin kutsagarrien arriskua, ingurumenaren aldetik lehengoratzeta eta paisaiarekin bat egitea edo trafikoaren zaratak pertsoneri eragozpenak sortzea.

10.1. ESKU-HARTZEKO PREMIAK ZEHAZTEA

Esku-hartzeko irizpideak sarearen geometriarekin eta trafikoarekin lotuta daude; hori dela eta, kasu hauetan esku hartuko da:

Edukiera nahikoa ez denean:

- Interes orokorreko sareko tartek, egungo trafiko intentsitateak, eguneko, 8.000tik 10.000 ibilgailura bitartekoak direnean eta bikoiztu ez badira.

- Interes orokorreko sarea, 9 metrotik beherako plataformekin eta 5.000tik 10.000 ibilgailura bitarteko trafikoekin eguneko.

- Foru Komunitatearen intereseko sarea, 8 metrotik beherako plataformekin eta 2.000tik 5.000 ibilgailura bitarteko trafikoekin eguneko.

- Foru Komunitatearen intereseko sarea, 6 metrotik beherako plataformekin, eta tokiko sarea, 5etik 6 metrora bitarteko plataformekin eta 1.000tik 2.000 ibilgailura bitarteko trafikoekin eguneko.

- Tokiko sarea, 5 metrotik beherako plataformekin.

Sarearen arriskua

Ondoren, sareak dituen arriskuetatik datozen beharrak daude: arriskugarritasun hori zehazteko, biktimak eragindako istripuak eta sareko trafiko intentsitatea gurutatu dira, eta inbertsio puntutzat hartu istripu ugariko tartek.

Zeharbideak eta hiri inguruak

Behar horiei gehitu behar zaizkie populazio-gu-neetako zeharbideei buruz egindako azterketak agerian utzi dituenak, bi defizit mota alegia: sai-

hesbidea behar duten zeharbideak, paseko trafikoa eta zeharbide barruko trafikoa bateratzeko aski ez direlako, hau da, trafikoa 2.500 ibilgailutik gorakoa denean eguneko; eta egokitzapena baizik behar ez duten zeharbideak, bi trafiko motak hobeki bideratzeko.

Iruñerria

Iruñerriko egungo ingurabideetan dauden esku-hartze beharrak ere aztertu dira, bi irizpide-tan oinarrituta: adar nagusiaren edukiera eta lotu-neen funtzionaltasuna.

Trafikoaren egungo kopuruekin, adar nagusiak ez du edukia arazorik, baina ez da berdin gertatzen PA-30 eta A-15eko zenbait lotunetan, bertan edukiera gutxitu egiten baita goiz eta arratsaldeko trafiko handieneko orduetan. Lotune batzuen inguruan etxebizitza berriak eta merkataritza eremuak eraiki izanak lotune horiek handitu eta hobetzera behartzen du ezinbestean; etorkizunean trafikoa handituko denez, gero batean kanpoko ingurabide bat egiteko aukera aztertu eta lurzorua gorde beharra dago, egungo ingurabideen funtzionaltasuna osatzeko.

Mantentze eta zainketa lanak

Esku-hartze beharren azterketak harago eman eta egungo foru sarearen mantentze eta zainketa lanak behar dituen eskakizun eta bermeekin egiteko beharrezkoa den inbertsioa ere aztergai izan da. Hori dela eta, planak bere baitan hartzen du alderdi hauen azterketa: sendotu beharreko zorurak, sarearen prebentziozko hobekuntzak, egin beharreko inbentario eta azterlanak, berri beharreko makineria eta informatika, eta egun dauden zainketa zentroak handitzea.

Arauen egokitzapena

Ondoko hauek eragindako esku-hartze beharrak ere aztertu dira: errepideko tuneletako segurtasunari buruzko Europako zuzentarau berria, Zaratei buruzko Legeak foru sarean duen aplikazioa, eta prebentziozko neurri gisa egungo sareko zenbait tarte ingurumenaren aldetik egokitzea, ibilgailuek animaliak harrapatzea saihesteko, faunarentzako egungo pasaguneak eta foru sareko errepide nagusien iragazkortasuna aztertuz.

Kontuan hartuta agiri hau Nafarroako Errepideen Sarea aztertzeko egindako lanen laburpena dela, ez dira bertan jaso aztertutako parametro guztien emaitzak, eranskinetan baizik.

11. FORU SAREAREN ETA BESTE ERREPI-DE SARE BATZUEN BAT EGITEA

Atal honetan planeamendu sektorialetan eta lurraldekoetan gertatzen diren aldaketak eta berrikuntzak aztertuko dira, Plan Zuzentzaile berriaren edukiei eragin ahal dieten neurrian, III. planaren indarreko eta etorkizuneko proposamenetan izan dezaketen eragina eguneratzeko xedearekin.

11.1. ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN PLANIFIKAZIOA

Azpiegituraren eta Garraioaren Plan Estrategikoa, 2005-2020

Ministroen Kontseiluak 2005eko uztailaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsia, Azpiegituren eta Garraioaren Plan Estrategikoak errepideko garraioaren arloko azpiegiturretan 2020. urtera arte egin beharreko jarduketak aurreikusten ditu, 62.185 milioi euroko inbertsioarekin guztira.

Plan Estrategiko honek aurreko Azpiegitura Plana ordeztu du, 2000-2010 urteetako, eta errepide sarean eta trenbideetakoan esku-hartze-ko proposamenak aldatzen ditu; bi azpiegiturek Plan Zuzentzaile berri honen proposamenetan eragin dezakete.

Plan berriak aurreko Azpiegitura Planean aurreikusitako hiri arteko jarduketetako batzula aldatzen ditu, hala nola A-15 autobia, Medinaceli-Soria, eta haren luzapena, Soria-Tutera aldera eta egungo Nafarroako Autobidearekiko lotura; aldaketak bidera dezake A-1eko eta AP-1eko trafikoaren zati bat ibilbide berri horretarantz.

Horrez gain, N-120 bikoiztea ere proposatzen da, Logroño eta burgos lotuko lituzkeen A-12 autobia izateko, A-1en eta AP-1en ibilbide alternatibo ere bihur litekeena; Logroño-Iruña tartean A-12 autobian barna luzatzeak penintsulako erdialdearekiko bigarren lotura osatuko luke, edukiera handiko bide baten bidez.

Plan berriak jaso du halaber Nafarroaren proposamen bat, Frantziarekin zuzenean lotzeko Pirinioetan barna, Pirinioetan zeharreko bide handi batekin, Iruñetik Frantziara Luzaiden barna, Frantziako autobia eta autobideekin lotzeko Saliese/Peirahorada inguruan; horrekin batera, Somporteko tunelean barna doan ibilbidearen kalitate eta segurtasun baldintzak egokitzea ere jasotzen du, Pirinioetako oztopoa errazago gainditzeko.

Azkenik, planak mantentzen du bere errepide programan Jaka-Iruñea bidea A-21 autobia bihurtzea; bide hori eraikitze lanak aurreratuta daude Nafarroan eta hasita, berriz, Aragoiko aldean.

Horrela, osatuta geldituko litzateke Nafarroaren eta Espainiaren arteko lotura, edukiera handiko bideen bidezkoa, EAeko, Errioxako, Gaztela eta Leongo eta Aragoiko autonomia erkidego mugakideetan barna, Frantziako hego-mendebaldearekiko loturari dagokionez etorkizunean har daitezkeen erabakien zain.

Trenbideko sareari dagokionez, planak mantentzen du prestazio handiko sarearen proposamena, EAEn, eta Castejón-Iruña-Altsasu ibilbidearekin eta Euskal Y-arekiko loturarekin osatzen du. Nafarroako abiadura handiko lineak garatu eta eraikitzeak eragina izan dezake errepideen sarearen erabileran. Edozein kasutan ere, prestazio handiko sarearen amaierako konfigurazioa burutzeko epeak 2009-2016 urteetako III. Plan Zuzentzaile honen eremutik kanpo gelditi litezke.

11.2. AUTONOMIA ERKIDEGO ETA FORU DIPUTAZIO MUGAKIDEEN ERREPIDE PLANAK

EAeko 2. Errepide Plan Orokorra, 1999-2010

EAeko Errepide Plan Orokor indardunak (1999-2010), 1998an onetsiak, bere jarduketa proposamenen artean aurreikusi zituen Araba eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan planaren xedeko sarearen barruan egin beharreko lanak; sare hori plan orokorra gauzatzeko aldi aztertutako sare funtzionalaren parte zen, eta hauze zen, funtsean, "lurralde historikoak elkarren artean edo administrazio autonomo mugakideekin lotzen dituzten errepideen multzoa, trafikoen garrantziaren arabera"; administrazio mugakide horien artean dago Nafarroa, eta gure kasuan EAerekiko loturak ia osatu egin dira II. Plan Zuzentzailearen bidez.

AP-1 (Eibar-Gasteiz) autobidea nabarmendu behar dugu, Nafarroako errepideen Sareko A-1 autobioako trafikoa eragin handia duelako.

EAeko Errepideen Bigarren Plan Orokorren Berrikuspenaren aurrerapenean oinarritzko zenbait helburu planteatzen dira hiru lurralde historikoen kanpoko sareei dagokienez:

- Kontuan hartzea errepide sarearen eginkizuna EAeko eta EBko garraioen arloko politikaren esparruan: EAeko garraio sistemaren iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa sustatzea, orokorrean hartuta.

- EAeko bide sarearen Europar zeharreko Sarean txertatzearen alde egitea.

- Bide sarearen eta lurraldea zeharkatzen duten loturako korridore handien (Ekialdea – Mendebaldea eta Iparraldea – Hegoaldea) arteko antolaketa hobetzea.

- Errepideen arloan eskumenak dituzten beste organismo eta erakunde batzuekiko ekintzei lehenetasuna eman eta horiek koordinatzea, bai EAEn bai erkidego mugakideetan.

Nafarroari dagokionez, aurrerapenean aurreikusirik dago Nafarroako Foru Komunitateak N-121-A errepideak Gipuzkoan egiten duen tarte lagatzea.

Aurrerapenak esku-hartzearen beharrak planteatzen ditu, funtsean A-15arekiko autobidearekiko loturari dagokionak; izan ere, bide handien lehenetasuneko intereseko sarean aurreikusten da Andoain eta Aduna artean edukiera handitzea, N-1ek eta Urumearen korridoren berriak osatzen duten edukiera handiko ibilbidean Gasteiz eta Nafarroarantz A-15ean barna, eta horrekin batera Sorabilla (Andoain), Lasarte eta Beasaingo lotunak birmoldatzea, azkenaren kasuan hirigintza arloko hobekuntzarekin lotuta, GI-2120 errepidearekiko loturan.

Oinarritzko sarean, GI-131 errepidean edukiera eta segurtasun arazoak daude gaur egun zenbait tartetan. Errepide hori lehen aipatutako ibilbidean (Urumearen korridorea) sartuta, A-15 autobideari jarraipena emanen dion ibilbidea osatuko da, Donostiako saihebidarekin eta bigarren ingurubidearekin batera, eta horri esker Donostiako trafikoa arinduko da eta Nafarroarekiko loturak hobetu egingen dira. Multzo osoa behin garatuta dagoenean, A-15 deituko zaio, egun dauden tarteei jarraipena emanez.

Lurraldez lurraldeko jarraibideetan ere aipatzen dira Gipuzkoaren eta Arabaren eta Nafarroaren arteko loturak. EAeko Lurraldearen Antolamendurako jarraibideek, errepideetarako jarraibide partikularren atalean, Donostia-Iruña ardatza (Ebroren ardatza Nafarroako autobian barna) aipatzen dute, Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemaren Kanpo Loturen barruan. Era berean, Tolosa eta Nafarroako autobia lotzea aurreikusten da, Berastegin barna, eskualde funtzionalak elkar lotzeko+.

Lurraldearen Antolamendurako jarraibidez gain, zenbait lurralde plan partzialetan jaso dira EAE eta Nafarroa arteko loturak. Zehazki, Guardiako (Arabako Errioxa) eskualde funtzionaleko lurralde plan partzialean, azpiegitura berrien atalean, A-3220 errepidea aurreikusten da, Kripanetik Nafarroako mugaraino. Donostiako (Donostialdea-Behe Bidasoa) eskualde funtzionaleko lurralde plan partzialean N-121-A errepidearen edukiera handitzea eta trazadura hobetzea proposatzen da, Nafarroarekin lotzeko oinarritzko bidea sarearen partetzat hartzen baitu.

Planaren aurrerapenak, 1. eranskinean (Planaren xede den sare proposatua), azterketaren xedea izan den sareko errepideen zerrenda jaso da (Nafarroako Errepide Sarearekin lotura duten errepideak baizik ez dira aipatzen):

- Lehetasunezko intereseko sarea:

√ A-1, iparraldeko autobia, Madriletik Irunera. Probintziako mugatik, Trebiñuko konderrian, Nafarroako Foru Komunitateko mugaraino.

√ N-I, Iparraldeko autobia. Nafarroako Foru Komunitateko mugatik Iruneraino (muga).

√ A-15, Nafarroa-Gipuzkoa autobidea. Nafarroako mugatik, Leitzaan, A-1ekin bat egin arte, Aduan.

√ N-121-A, Iruñetik Irunera, Endarlatsako zubitik Behobiaraino.

- Oinarrizko sarea:

√ A-132, Irunberritik (Tafallan eta Lizarran barna) N-104 errepidearekin bat egin arte Elorriagan (Nafarroako muga).

Errioxako Errepide Plana. 2001-2010

Errioxako Autonomia Erkidegoko errepide plana abenduaren 28ko 8/2000 Legearen bidez onetsi zen, 10 urteko indarraldia izateko (2001-2010), eta Nafarroarekiko loturei zegokienez, Errioxako Autonomia Erkidegoko errepideei buruzko martxoaren 7ko 2/91 Legearen bidez onetsitako sailkapen bera jaso zuen. Lege horretan oinarrizko erregio sarean sartuta jasotzen ditu Nafarroarekin mugakide diren errepide hauek:

- LR-115, Soriako probintziako mugatik Nafarroako mugara, Enciso, Arnedo, Autol eta Rincón del Soton barna.

- LR-123, N-113tik Valverden Nafarroako mugaraino, Cervera del Río Alhama, Arnedo eta el Villar de Arnedon barna.

- LR-131, Hartziko Zubitik, N-111 errepidean, LR-123 errepidera, Mendabian eta Lodosan barna.

- LR-134, LR-123tik Nafarroako mugara, Calahorran barna.

Eta eskualdeko sarean honako errepide hauek, Nafarroarekin muga dutenak:

- LR-285, N-232tik, Rincón del Soton, LR-123ra, Ventas del Bañon barna.

- LR-287, N-232tik, Alfaron, Nafarroako mugara, Corellan.

- LR-288, N-232tik, Alfaron, N-113ra, Castejoren.

Aragoiko Errepideen Plan Orokorra 2004-2013

2003an onetsitako dokumentu horretan egungo bide sarearen diagnostikoa jaso da, azterketa funtzionalak eta irisgarritasunari buruzkoak barne, antolaketarako irizpideak, Aragoiko lurraldea planifikatzeko beste agiri batzuetan zehazki bilduta daudenak, 2013. urtea helmuga dela egin beharrek jarraitzeko proposamenak eta programazioak. Hauek dira helburu nagusiak: Huesca eta Teruel lotzea autobia nagusiekin, Zaragozako ingurabideak eraikitzen jarraitzea, Somport-Sagunto autobia osorik zerbitzuan jartzea, Iruña-Huesca-Lleida autobian obrak egitea, Katalunia Espainiako hego-mendebaldearekin Teruelen barna lotzeko autobia planifikatzea, Zaragoza-Bordeaux ibilbide osoa, Jakan eta Paben barna, autobia bihurtzeko lanak, Barbastro-Bielsa-Aragouet ardatzarekiko komunikazioak hobetzea.

Planak ibilbideak mailakatzea proposatzen du, bakoitzak hartzen duen lurraldearen arabera. Europar Batasuneko azpiegiturak garatzeko estrategiaren barruan. Estatuan, estatuaren interes orokorraren erregioz gaindiko sare bat eta mugakide diren autonomia erkidegoen intereseko erregioz gaindiko beste sare bat planteatzen dira. Atal horretan sartzen dira Nafarroako Errepideen Sarean eragina izanen duten ekintzak.

Egungo planak sare baten moduan egituratzen du bide sarea, eta bertan hutsuneak betetzen joaten dira maila txikiagoko bideekin. Eskema horren barruan planteatzen dira sarea osatzeko ekintzak.

Nafarroako errepide planean duen eraginari dagokionez, erregioz gaindiko bi ardatz handi daude, Aragoiko errepideen plan orokorrak proposatuta:

- Ebroren ardatza, EAE eta Nafarroa Kataluniar kostaldearekin (Bartzelona eta Tarragona)

- Bilbo eta Zaragoza arteko ardatza, E-804 (Bilbo-Miranda de Ebro) eta E-805 (Miranda de Ebro-Zaragoza), A-68 osatzen dutenak.

Azken horren xedea da N-232 errepideko trafikoaren zati bat bereganatzea, AP-68ren egungo bide-saria saihesteko.

Barneko sare-egituraren proposatzen diren bost ekintzak eragina izanen lukete Nafarroan:

- Pirinioetako ardatza:

√ Zangoza-Jaka-Sabiñánigo-Ainsa-Campo-
(Kataluniarantz)

- Somontanoko ardatza:

√ Tuter-a-Ejea-Ayerbe-Huesca-Barbasro-Bena-
barre

- Monzon-Huesca ardatza, Iruña-Huesca-Llei-
da ibilbidea ixten duena.

- N-232 errepidea (Tutera-Gallur-Alagón-Zara-
goza-El Burgo de Ebro-Quinto-Híjar-Alcañiz)

- Tarazona-Tutera errepidea

Aragoiko lurraldea egituratzeko bide ardatzetan proposatzen diren zenbait jarduketak eragina dute Nafarroako sarean:

- Puente la Reina-Hecho-Ansó-Nafarroa ada-
rra, errepide arrunt gisa proposatuta eta Nafarroan
NA-176arekin lotzen dena.

- Nafarroa-Sause-Ejea de los Caballeros-
Gallur-La Almunia-Cariñena, errepide arrunt gisa
proposatuta Zangozatik Gallurrera bitarte, eta
Nafarroan NA-176arekin lotuta.

- Nafarroa-Jaka-Sabiñanigo-Fiscal-Aínsa-
Campo-Pont de Suert, autobia gisa proposatuta
Zangozatik Sabiñánigora, eta Nafarroan N-240 (A-
21) errepide bikoiztuarekin lotuta.

- Tutera-Ejea-Ayerbe-Huesca-Barbastro-Bena-
barre-Puente de Montañana, errepide arrunt gisa
proposatuta Tuteratik Ayerbera, Nafarroan NA-125
errepidearekin lotuta.

- Zangoza-Huesca(Jakan edo Ayerben barna)-
Barbastro-Monzón-Binéfar, autobia gisa proposa-
tuta eta Nafarroan N-240 errepide bikoiztuarekin
lotuta (A-21).

- Tutera-Gallur-Alagón-Zaragoza-El Burgo de
Ebro-Quinto-Híjar-Alcañiz-Valderrobles-probintzia-
ko muga, autobia gisa proposatuta eta Nafarroan
N-232 errepide bikoiztuarekin lotuta (A-68).

Proposatutako ardatz horiez gain, planak garrantzi txikiagoko beste jarduketa batzuk ere aurreikusten ditu:

- A-125, Nafarroatik Valareñara, NA-125 errepidearekin lotuta.

- A-126, Nafarroatik A-127ra, NA-126 errepidearekin lotuta.

- A-137, N-240tik Nafarroara, NA-137 errepidearekin lotuta.

Gipuzkoa eta Arabako errepideen lurralde planak

EAEko gainerako lurraldeekin, EAEko errepideen 2. plan orokorrak koordinatzen ditu Gipuzkoako eta Arabako errepideetako funtzionaltasuna eta jarduketak eta lurralde planak.

Gipuzkoako Errepiden lurralde planaren aurreapena 1994koa da; ondoren, 1997ko urrian, behin betiko lurralde plan sektoriala egiteko agindu zen, onetsitako planaren aurrerapenetik abiatuta. LPS horrek hasierako onespina lortu zuen orduan, eta 2004. urtean zen berraztertzea. Gaur egun, plan horren berrikuspina egiteko prozesuan dago.

Plan horrek proposatzen du Nafarroarekiko bigarren mailako loturak hobetzea GI-2130 errepidean barna, Tolosatik Nafarroako mugara Berrobi, Elduaie eta Berastegin barna, Leitzañ Nafarroako Autobiarekin bat egin arte. NA-1230 errepidea Nafarroako tartean hobetzeko aukera ere aztertu zen, Leitzatik Gipuzkoako mugara bitartean.

Arabako Foru Diputazioak ere 2008an onetsi zuen bere errepide plan integrala (2004-2015), eta bertan jasotzen dira Araba eta Nafarroako lurraldeen artean egin beharreko bigarren mailako jarduketak guztiak.

- A-126 egokitzea A-3136 errepidearekiko gurutzagunetik Nafarroako mugaraino (Angostinan).

- A-126 egokitzea, Nafarroako mugatik (Genevillan) Santikurutze Kanpezuraino (Int. A-132).

- A-2126 errepidearen trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, A-126aren gurutzagunetik, Bernedon, Nafarroako mugaraino.

- A-2126 errepidearen egokitzapena, Nafarroako mugatik Oiongo hiri-eremura (Nafarroako muga-Yecora tartea)

- A-3116 errepidea zabaldu eta plataforma hobetzea, adarretik Nafarroako probintzia mugaraino (Larragoan).


- A-3220 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma handitzea, Lantziegoko hiri-eremuaren amaiera/A-4209 gurutzagunetik hasieraraino (Larragoan). Lantziego eta Kripango Udalaren eskaera bat jaso da, Assatik Nafarroako mugara bitartekoa hobetzeko.

- A-3220 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma handitzea, Kripango ekialdeko saihesbidearen amaieratik Nafarroako mugaraino. Lantziego eta Kripango Udalaren eskaera bat jaso da, Assatik Nafarroako mugara bitartekoa hobetzeko.

- A-3220 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma handitzea, A-124 errepidearekiko guru-

tzagunetik Lantziegoko hiri-eremuaren hasieraraino. Kripango ekialdeko saihsbidearen amaieratik Nafarroako mugaraino. Lantziego eta Kripango Udalaren eskaera bat jaso da, Assatik Nafarroako mugara bitartekoa hobetzeko.

- A-3226 errepidearen saihsbidea Moredan, saihsbidearen hasieratik Nafarroako mugaraino.



IRUDI-TESTUAK

- Autopistak
- Autobideak
- Bikoiztutako bideak
- Prestazio handiko errepideak
- Interes orokorreko errepideak
- Foru Komunitatearen intereseko errepideak



Gobierno de Navarra
Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Comunicaciones

III Plan Director de Carreteras de Navarra 2009 - 2016

Título del Plano: **INTEGRACIÓN DE LA RED FORAL CON OTRAS REDES DE CARRETERAS**

Empresa Consultora:	Fecha:	Nº Plano:
ETT	Febrero 2009	12

12. FORU SAREA ETA LURRALDE PLANEAMENDUA

12.1. NAFARROAKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANAK (LAP)

Nafarroako lurralde antolamenduko planetan garatzen da Foru Komunitateak lurraldearen arloan ezarri duen estrategia, hau da, lurraldea hiri-erregio gisa antolatzea, erdigune funtzionala Iruñean duela.

Ibilgailuen komunikazioen ikuspuntutik, estrategia horrek honakoak garatzea eskatzen du:

- Kanpoko loturak
- Tarteko guneen erlazioak garatzea
- Gainerako populaziguneen irisgarritasuna

Lurralde antolamendu mota honen xedea da Nafarroako bideen esparruan atzeman diren arazoei aurre egitea:

- Alboko kokapena garraio ardatz handiekiko
- Edukiera handiko sarearekiko irisgarritasun txikia, batez ere Pirinio aldean
- Zeharkako komunikazioen hobekuntza, sarea trinkotuz
- Garraio publikoaren erakargarritasuna hobetzea
- Egun dauden ardatzetan trenbideko garraioa bultzatzea

Horrez gain, xedea da lurralde osoaren garapena, ipar-ekialdeko eskualdearen irisgarritasuna hobetuz eta bide handiak lotzen dituzten zeharkako sareak mantendu eta hobetuz.

Helburu horiek lortzeko, oro har, LAPak adierazten du zein bide nagusitan egin behar diren jarduketak. Jarduketa horiek erregio bakoitzeko LAPean zehazten dira eta, kasu batzuetan, zabaldu ere bai.

Erregioz gaindiko komunikazio bideak:

• AP-15 autobidea (1) Iruñeraino, A-15 Iruñeko mendebaldeko ingurabidea, AP-15 (2) eta haren jarraipena A-15 Leitzarango autobiarekin

- A-12 Done Jakue bideko autobia
- A-10 Sakanako autobia eta haren luzapena A-1 Iparraldeko autobian
- N-121-A errepidea Iruña-Behobia
- Ebroren ardatzaren multzoa, A-68 Ebroko autobiak, Vasco-Aragonesa autobideak eta NA-134 Ebroren ardatzeko errepideak osatua.

- A-21 Pirinioetako autobia
- Pirinioetako konexioa, Luzaiden barna (egungo N-135)

• Iruñeko PA-30, PA-32, PA-33 eta NA-30 ingurabideen multzoa

- Medinaceli-Soria-Tutera autobia

Proposatutako sarea osatzeko bideak:

• Lizarra-Zangoza komunikazioa: egungo N-132 (Lizarra-Tafalla-Zangoza), Gasteizeraino luzatua NA-132-A errepidean barna eta A-21 errepidearekiko lotura Zangozatik.

• Acedo-Azkoi-Zangoza komunikazioa: aurrekoa inguratzen du, NA-129, NA-134, NA-624, NA-128, NA-121, NA-124, NA-534 eta NA-5340 errepideetan barna, Acedotik Zangozara eta A-21 errepidearekiko loturara.

• Irunberri-Agoitz-Iruña: Lizarra-Zangoza ardatzaren koroa ixteko iparraldean, egungo NA-150 errepidetik jarraituz.

• Ebroren ardatza iragazkortzea: bazterrak lotuz, Miranda de Ebro-Logroño-Tutera-Zaragoza-Tarragona korridore ekonomikoa garatu liteekela aurreikusita. Hiru konexio planteatzen dira: N-111 Ebroren ardatzarekin; Lodosa-Ap-15 konexioa; eta Ebroren ardatzeko bideen arteko lotura Milagron.

• Iparraldeko komunikazioa: eraztun kontzentrikoak ixtea, A-21 autobiatik hasita, Esako urtegiaren azken zatian, NA-137 errepidean barna, NA-140 errepidean barna jarraitzeko Pirinioetan zeharreko bidearekin lotu arte. Pirinioetan zeharreko tartea N-121 errepiderantz jarraitzen du (Zubiri eta Olague lotuz), ibilbidea egungo NA-120 errepidean amaitzeko (A-15-Donostia).

LAP 1: Pirinioak

LAP 1 izeneko eremuan jarduketa hauek sartuta daude:

• Pirinioez hegoaldeko autobia (A-21 Pirinioetako autobia): Longida, Urraulbeiti, Urraulgoiti, Zaraitzu eta Erronkaribar eta Irunberri, Nabaskoze eta inguruko herriak edukiera handiko azpiegituretara hubiltzen ditu.

• Pirinioetan zeharreko bidea (Nafarroa-Pirinio Atlantikoak lotzen dituen bidea) eta obra osagarriak: Pirinio Atlantikoekiko akordioa bertan behera gelditu ondoren, bete beharreko helburu bakarra hau da: Iruñera iristeko komunikazioak erraztea Nafarroako Pirinioetako haranetatik.

• Izaba-Ereta errepidea: Helburua da Erronkaribarko ipar-ekialdeko zentroa garatzea.

- Elkoatz-Aristu-Azparren konexioa: Aretako mendietan dagoen zaku-hondoa arinduko du.

LAP 2: Nafarroa Atlantikoa

LAP 2an sartutako eremua edukiera handiko bi bidek gurutzatzen dute: A-10, Irurtzundik Altsasura, non A-1 errepidearekin eta A-15arekin lotzen den, Guliako AP-15arekiko lotunetik erkidegoko mugaraino (Areso). Mugan dagoenez zaila da bateratzea ibilbide luzeko trafikoa eta barneko mugimenduak. Ekialdean, berriz, irisgarritasun falta nabarmena dago. Hori dela eta, lurralde jarduketarako bi arlo planteatzen dira errepideen sarean:

- Ipar-ekialdean, edukiera handiko bideetarako irisgarritasuna hobetzea.

- Bide handiak elkar lotzen dituzten zeharkako sareak mantendu eta hobetzea

Gabezia horiei aurre egiteko honakoetan aurreikusi dira jarduketak:

- N-170, Doneztebe/Leitzan

- N-121-B, Otsondoko tunelean.

- Kintoa, LAP1 eta LAP2 planetan sartzen diren eremuen arteko komunikazioak hobetzeko.

- Alkitaniarekiko bigarren mailako komunikazioak hobetzea

LAP 3. Erdigunea

Erdiguneak, Iruña ingurukoak, hogeita zortzi mugape hartzen ditu, hamazortzi udalek administrazioak, hiri bakar batean egituratuta, multzo osoa kudeatzen duen entitate administratiborik ez bada go ere.

LAP 3aren helburu orokorren artean dago eskualdeko guneen arteko konektibitatea hobetzea eta mugigarritasun iraunkorra areagotzea garraiobide guztietan. Bide sareari dagokionez, helburu funtsezkoena da Iruñerako eta inguruko udalerrietarako sarbideko eskema erradiala zabaltea, haien egitura aldatu gabe. Horretarako, jarduketa hauek proposatzen dira:

- Hiriaren eta inguruko guneen arteko bide loturako bultzatzea.

- Hiriraino iritsi eta barneratze bideak bikoizteari dagokion politikari eustea, arreta berezia emanez A-12 autobiarri.

- Sarebegiak osatuz, eremuak elkar lotzeko sare bat diseinatzeko aukera ematen duten espazioak aurreikustea

- Hiri erdiko auzoen bi ingurabideak ixteko aukera aurreikustea

- Mugigarritasun iraunkorra irmo bultzatzea

- Hiriaren bide sarea erabilera anitzetarako gune izan dadin diseinatzera bideratuko duten irizpideak zehaztea

LAP 4. Erdiko aldeak

LAP 4ak hainbat helburu estrategiko ezartzen ditu errepideen sarerako:

- Bide handiak elkar lotzen dituzten zeharkako sareak mantendu eta hobetzea

- Ardatz erradialen artean bi koroa sendotzea:

- √ Lizarra-Zangoza ardatza. NA-132 errepidetik hasita (Lizarra-Tafalla-Zangoza), bere luzapenarekin Gasteizerantz, NA-132 errepidean barna, eta A-21 autobiarrekiko lotura Zangozatik (Iruña-Jaka). Horrela, loturik geldituko dira A-12 Done Jakue bideko autobia, AP-15 Nafarroako autobidea eta A-21 autobia (Iruña-Jaka).

- √ Acedo-Azkoien-Zangoza ardatza. Aurrekoaren inguruan, NA-129 errepidean barna doa (Acedo-Lodosa), NA-134 (Ebroren ardatza), NA-624 (Azkoien-Andosilla), NA-128 (Caparroso-Azkoien), N-121 (Iruña-Tutera), NA-124 (Caparroso-Zarrakaztelu), NA-534 (Judasen Benta-Oibar-Zarrakaztelu) eta NA-5340 (Zangoza-Kaseda).

- Tafallako saihsbidea eraikitzea

Aurreko helburuak betetzeko, jarduketa zehatzak proposatzen dira bide hauetan:

- A-21 Pirinioetako autobia, Judasen Benta-Esa

- A-21 Pirinioetako autobia, Esa-Nafarroako muga

- Bideko autobia Logroñorekin lotzea

- NA-132 errepidea hobetzea eta bultzatzea, eta Zangoza ingurua Jakako autobiarren inguruan antolatzea, ekialde-mendebalde zeharkako konexioen begizta hegoaldeetik ixtea bermatzeko. Tafallako saihsbidea.

- Lizarraldeko egungo barne komunikazio sarea sendotu eta hobetzea

- Burunda eta Ebroren ardatza lotzea Urbanan eta Egaibarren barna, iparraldetik hegoaldera.

- Pirinioak eta Erribera lotzea, Ledea, Irunberri, Kaseda, Zarrakaztelu eta Caparroson barna


LAP 5. Ebroren ardatza

LAP 5ak hartzen duen eremua Ebroren ardatzari begira dago guztiz, eta ardatz horrek lurraldea egituratu eta biziguneak lotzeko eginkizuna betetzen du. Bide azpiegiturek sendotu egiten

dute zeregin hori, Tuter-Logroño (NA-134), Tuter-Ejea de los Caballeros (NA-125) eta Tuter-Tauste (NA-126) ardatzekin, guztiak Foru Komunitatearen intereseko sarearen parte. Eskualde mailan eskema hori bera ageri da, NA-160 (Tuter-Fitero) eta NA-161 errepideekin (Corella-Rincón de Soto). Bi maila horietatik gorago AP-68 autobideak (logroño-Tuter) eta N-232 errepideak eratzen duten korridorea dago; N-232 errepidea bikoiztua dago Castejón-Tuter-Cortes tartean.

Egungo ardatza sendotze aldera jarduketa hauek aurreikusi dira:

- Bide sare berriak (Tuter-Medinaceli), Tuter eta, horrenbestez, Ebroren ardatza inguruko lurraldeekin eta eskualdeekin lotzen dituztenak.
- Ebroren bi bazterretan dauden ibilgailuendako bideen arteko joskurak sendotzea
- Viana-Lodosa-San Adrián-Milagro-Valtierra-Tuter ardatza hobetzea, NA-134 errepidea indartuz, A-68 autobidearen alternatiba izateko, eta Calahorra-San Adrián-Azkoien tarteak hobetzea



12.2. IRUÑERRIKO BIDE SAREAREN KASU BEREZIA

Iruñerriko bide sarea saihezbide batekin egituratuta dago; gehienbat edukiera handiko bideek osatzen dute, eta hiri arteko bideak eta eskualde eta tokiko sareak, eskualdeko bertako trafikoak bideratzen dituztenak, lotzen dituzte. Saihezbidea tarte hauek osatzen dute:

- Mendebaldean eta hegoaldean A-15 autobidea du euskarri. Saihezbidean, autobide tarte hori bidesaririk gabekoa da eta A-15 Iruñeko Ingurabidea (mendebaldea) du izena.

- Beste saisbide bat dago barrualderago, ekialderantz, NA-30 errepideak (Landabengo sarbidea) eta PA-30 ingurabidearen lehen tarteak osatua, jarraipena PA-30ean (Iparraldeko Ingurabidea) duena, hegoaldean A-15arekin lotu arte.

- Iparraldeko tarte PA-34 (Iruñeko mendebaldeko sarbidea) eta PA-30 (Iruñeko iparraldeko ingurabidea) ingurabideek osatzen dute. PA-34 errepideak A-15 eta PA-30 (Iruñeko iparraldeko ingurabidea) lotzen ditu. PA-30 ingurabideak (Iruñeko iparraldeko ingurabidea) ekialderantz segitzen du N-121-A eta N-135 errepideekin bat egin arte. N-121-A errepidetik N-135 errepidera bitarteko tarte ez da edukiera handiko bidea.

- Ekialdeko tarte PA-30 da (Iruñeko ekialdeko ingurabidea), PA-30 (Iruñeko iparraldeko ingurabidea) iparraldeko muturrean A-15aekin eta PA-31rekin (Iruñeko hegoaldeko sarbidea eta aireportua) lotzen dituena hegoaldean.

Bide hierarkizazioak aukera ematen du Iruñerriko bideei buruzko ideia orokor bat izateko, lehentasuna emanaz erabilera edo eginkizun zehatz batzuei bide mota bakoitzean.

Bide sareak funtsezko bi eginkizun betetzen ditu. Batetik, garraiorako bidea da, publiko nahiz pribaturako, motorizatu gabeko trafikoa barne. Bestetik, jarduera sozioekonomikoetarako euskarria da, bertatik oinezkoak eta ibilgailuak eraikintan sartu eta bertatik ateratzen baitira.

Bide sarearen eginkizunen ondorioz, esan daiteke bide sareak lurraldearen zatiak lotzen dituela eta, zenbateko distantzia izan jarduera edo etxebizitza guneetara, halakoa izanen da eragin eremua. Bi aldagai horiek (lurraldeko zer elementu lotzen dituen eta eragin eremua) ezartzen dute bideen hierarkia: hirien artekoak, hiri barnekoak, tokikoak, etab.

Pauta horiei jarraikiz, bide hierarkia bat ezartzeko erabiltzen diren irizpideen artean hauek daude: tarteen ezaugarri funtzionalak eta geome-

trikoak, trafiko kopurua, eta zein jarduera sozioekonomiko garatzen diren ondoan, bide horiek zerbitzua emanda.

Aurreko irizpide horietan oinarrituta, sarearen sailkapena hau da: lehen mailako bideak (hirien artekoak eta hiri barneko arterialak), banatzaileak eta tokikoak.

Hirien arteko lehen mailako bideak

- Distantzia luzeko mugimenduak bideratzen dituzte eta hirira sartzen diren ibilgailuak banatzen eta loturazko lanak betetzen dituzte.

- AP-15 autobidearen jarraipena den Iruñeko mendebaldeko Ingurabidea da bide mota horren adibide bat.

Bide arterialak

- Iruñerriko sare nagusia osatzen dute. Haien helburua da hiriko alde desberdinak lotzea, eta trafiko gehiena kale horietan barna gelditu gabe joaten da.

- Horrela, eta Iruñerriko bideen egitura zein den ikusita, bide erradialak eta zeharkakoak daude.

- Multzo honetan sartuta daude ingurabideak, Nafarroako etorbidea, Zaragozako etorbidea eta Nafarroa Behereko etorbidea.

Bide banatzaileak

- Hiriko eta hirien arteko trafikoak tokiko sareantz banatu edo bideratzeko eginkizunak bete ditzakete. Tarteko bideak dira, kasu batzuetan jarraipenik ez dutenak hirien arteko ibilbideetan. Hiri barneko mugimenduak dira nagusi bide mota honetan.

- Talde honetan sartuta daude: Sanduzelako etorbidea, Marcelo Celayeta etorbidea eta Atarrabiako etorbidea, Antso Azkarraren etorbidea, Pio XII.aren etorbidea, Nafarroako etorbideetik Armadaren etorbidera bitarte, eta Baionako etorbideak eta Armadaren etorbideak eratutako ardatza.

Tokiko bideak

- Nagusiki, haien eginkizun nagusia bide bazterretan dauden erabiletara irispidea ematea da.

- Bide hauetan, distantzia luzeko mugimenduak hiri barneko trafikoa baino gutxiago dira eta, honen barrenean, paseko mugimenduen kopurua txikiagoa da bide bazterretan dauden jardueretara sartu-ateratzekoena baino.

Iruñerriko **trafikoaren azterketan** bi esparru hartu dira aintzat:

- Hirien arteko sarea: Iruñerrira kanpotik sartzen den trafikoaren bolumena neurtzeko aukera ematen du. Komeni da aipatzea sare honen zati handi bat, Iruñeko ingurabidea, erabiltzen dela bai distantzia luzeko hirien arteko bidaietarako, jatorria eta destinoa Iruñerritik kanpo dutenetarako, bai Iruñerriaren barruko hirien arteko bidaietarako.

- Iruñerriko bide sare osoa.

Hirien arteko bideen sareko trafiko datuak

Nafarroako Foru Komunitateko errepideen sareko 2007ko neurketa planean jasotakoak dira.

Trafikoari buruzko datuek erakusten dute bolumen handienak batez ere Iruñeko Ingurabidean (PA-30) eta A-15 autobidean daudela, Iruñetik Noainera bitarteko tartean.

Trafiko handiena duten Iruñeko Ingurabideko tartekak hauek dira: PA-30 (Iruñeko ingurabidea (iparraldekoa) eta Iruñeko ingurabidea (mendebaldekoa)), NA-231 errepidearekiko loturatik ekialderantz, eta PA-30 (Iruñeko Ingurabidea (Ekialdea)), A-12tik PA-30arekin bat egin arte.

Ondoren zehatz-mehatz aztertzen dira Iruñeko ingurabideko tartekak banan banan.

Bidesaririk gabeko A-15 autobideko tarteren batek du Iruñerriko Eguneko Batez Besteko Intentsitate (EBI) altuenetako bat. Halere, Iruñerrian barna doan eta EBI altuena duen A-15aren tarte hori ez dago ingurabideetan. Tarte hori Iruñeko hegoaldeko sarbidea da, Noaindik, eta bertan EBI 50.000 ibilgailutik gorakoa da eguneko.

2000tik 2005era bitarteko epean, Iruñerria gurutzatzen duten A-15aren tartetean, trafikoaren urteko batez besteko hazkunde tasa %5ekoa izan zen. Hazkunde handienak ingurabideko tartetean erregistratu dira.

Iruñerriko istripuen eta puntu beltzen azterketak Iruñeko udalerrria eta Iruñerriko hiri arteko erre-

pideak ditu jomuga. 2007an, Iruñerrian ez zegoen istripu ugariko tarterik, ez eta arriskua izan daitekeen tarterik ere. Badira, ordea, zenbait puntu zail, istripua gertatzeko aukera nabarmenekoak. Puntu horietan hildakoak eragin dituzten istripuak gertatu dira aurreko urteetan. Puntu zail horietan hauek nabarmendu daitezke:

- A-15 autobidearen eta Ezkizozko errepidearen arteko lotunea (NA-6001).

- A-12ren lotura Zizur Nagusian.

Iruñerriko sarearen arazo nagusiak ez datoz tarte bikoiztuetan duen edukieratik, oraingoz, trafiko handieneko orduetan izan ezik, zerbitzu maila ona baitute (ingurabideetan kopuruak 35.000tik 40.000 ibilgailura bitartekoak dira egunean), lotune eta gurtzaguneetatik baizik, inguruetan diren etxebizitza ugariengatik. Arazo kopuruagatik aipatzekoak dira Sarrigurengo lotunea, Berriozar eta Noaingo biribilguneak eta Mutiloako erdi-lotunea.

Iruñerriko egindako azterketan, etorkizuneko etxebizitza kopuruari buruzko 4 kalkulu hauek erabili dira:

– E1, 2016. urterako, 17.147 etxebizitza berriekin

– E2, 2026. urterako, 36.765 etxebizitza berriekin

– E3, 2016. urterako, 36.765 etxebizitza berriekin

– E4, 2026. urterako, 58.208 etxebizitza berriekin

Lanerako hipotesi horiekin, Iruñeko erdigunean populazioari 50.000tik 150.000 biztanlera bitarte gehituko zaizkio, hau da, egungo 320.000 biztanleetatik 370-470.000 biztanletara igoko da populazioa. Hortaz, ibilgailu pribatuaren bidezko mugagarritasuna lau O/D matrizeetan islatzen da, guztira zatiki hauekin, denboraren arabera:

	Mugagarritasuna 2007	E1	E2	E3	E4
		2016	2026	2016	2026
Mugagarritasunaren matriza (gehiketa)	478.071	556.100	685.343	606.300	740.400
% (2007ko urtekoarekin alderatuta)		16,3	43,4	26,3	54,9

Lan hipotesiaren arabera, 2016rako, ibilgailu pribatuaren bidezko mugigarritasunak %16,3 gora eginen luke, etxebizitzaren kopuruari 17.000 gehitzen bazaizkio, eta %26,3, denbora epe berean 36.765 etxebizitza berri badira.

2026rako, berriz, ezarritako hipotesien arabera, mugigarritasunaren igoerak %43,4tik %55era bitartekoak izanen lirarteke, betiere aurreikusitako 58.000 etxebizitzaren hiri garapenekin lotuta dauden biztanle eta jarduera hazkunde erritmoak beteko balira.

Eraitza horietatik abiatuta, ondorioa da ingurabideetan bikoiztuta ez dauden tarteen arazoak egonen direla, edukiera faltagatik, eta horrek esan nahi du beharrezkoa dela bikoizketak amaitzea plan honek hartzen duen epean.

Etxebizitzaren hazkundearen arlorako aztertu diren etorkizuneko aurreikuspen horiek aurretiazko

azterlan bat egitera behartzen dute, kanpoko ingurabide berri bat eraikitzeke lurzorua gordetzeko, batez ere eskualdearen hegoaldeetik eta ekialdeetik erraztuko duena etxebizitza, merkataritza eta hirugarren sektoreko guneak garatzeak ekarriko duen mugigarritasuna.

Ondoko taulan jaso dira Iruñerriko hirigintza garapen guztiak (2016 eta 2026rako kalkulatuak), eta mapetan, berriz, eskualdeko bide sarean sortuko duten trafikoaren eragina.


Azkenik, Iruñerriko trafikoaren mapa ageri da, 2026koa, kanpoko ingurabide berri bat ere kontuan hartuta.

Hiri garapenak


Etxebizitza kopurua denbora-mugaren arabera, eta hipotesiak.

Herria	Proiektaturiko etxebizitzak	E1	E2	E3	E4
		2016	2026	2016	2026
Antsoain	1.460	219	219	219	219
Barañain	920	368	736	736	920
Beriain					
Berriobeiti	500	500	500	500	500
Artika berri	1.800	900	1.800	1.800	1.800
Berriozar	1.032	1.032	1.032	1.032	1.032
Burlata					
Ripagaina	3.964	2.378	3.964	3.964	3.964
Zizur Txikia	396	59	59	59	396
Etxauri					
Eguesibar	8.000	0	4.000	4.000	8.000
Sarriguren	4.600	690	690	690	690
Ezkabarte	900	450	900	900	900
Galar	480	72	72	72	72
Donapea	4.300	1.290	3.010	3.010	4.300
Uhartea	1.189	178	178	178	178
Mokarte	395	395	395	395	395
Txulapain					
Noain (Elortzibar)	1.060	159	159	159	195
Olaibar					
Oitza					
Orkoien	800	120	120	120	120
Iruña					
Etxabakoitz (AHT)	7.005	1.401	4.203	4.203	7.005
Sanduzelai (AHT)	1.125	225	675	675	1.125
Lezkairu	6.270	1.881	4.389	4.389	6.270
Magdalena	500	75	75	75	75
Arrosadia	1.293	1.293	1.293	1.293	1.293
Tiebas-Muru Artederreta					
Arangurenko Ibarra	3.100	465	465	465	465
Mutilbenartekoa	1.658	1.658	1.658	1.658	1.658
Atarrabia					
Zabaltza					
Zizur Nagusia	1.672	1.337	1.672	1.672	1.672
Gendulain	15.000	0	4.500	4.500	15.000
Etxebizitza, guztira	69.419	17.147	36.765	36.765	58.208


2016. URTEA. E1 KALKULUA. 17.147 ETXEBIZITZEN GEHIKUNTZA




2026. URTEA. E2 KALKULUA. 36.765 ETXEBIZITZEN GEHIKUNTZA




2016. URTEA. E3 KALKULUA. 36.765 ETXEBIZITZEN GEHIKUNTZA



2026. URTEA. E4 KALKULUA. 58.208 ETXEBIZITZEN GEHIKUNTZA



2026. URTEA. E5 KALKULUA. 58.208 ETXEBIZITZEN GEHIKUNTZA



13. JARDUKETEN EZAUGARRIAK

Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzentzaileak (2009-2016) eusten die Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzentzailearen arabera (2002-2009) Nafarroako errepide tartek bete behar dituzten gutxieneko parametroi buruzko irizpideei, halako moduan non egun gutxieneko parametro horiek betetzen ez dituzten tartek plan zuzentzaile berriaren esku-hartzerik izan beharrik ez duten tartetzat hartzen dira.

Gutxieneko parametro horiek "Esku-hartzeko atalaseak" deitzen dira, eta zenbait ezaugarri teknikoren arabera ezartzen dira; ezaugarri horien eskakizun maila errepidearen kategoriaren arabera da edo Nafarroako orografiako zein tokitan dauden kontuan hartuta.

Nafarroako errepideen sareko zein tartetan ez diren betetzen esku-hartzerako gutxieneko baldintzak behin zehaztuta, errepide tarte horiek egokitu ondoren bete beharreko "Diseinurako irizpide teknikoak" aplikatzen dira.

13.1. DISEINURAKO IRIZPIDE TEKNIKOAK

Hauxe da horiek ezartzearen helburua:

- Nafarroako errepide sarearen parametroak homogeneizatzea.

- Kilometro bakoitzeko kostuaren baldintza ekonomikoko batzuk ezartzea, jarduketa motaren arabera tasatuak.

- Sarearen luzera toki gehiagotara iristeko aukera ematea, Plan Zuzentzailean sartzeko modukoa.

- Proiektuak erredaktatzeko lanak erraztea.

Diseinurako irizpide teknikoak hiru baldintzatan oinarrituta definitzen dira:

- Esku-hartze intentsiborako prozedura bat ezartzen da ("I" motakoa), esku-hartzea behar duten errepide mota guztietarako, trafikoa, eguneko, 2.000 ibilgailutik gorakoa denean.

- Esku-hartze estentsiborako prozedura bat ezartzen da ("E" motakoa), esku-hartzea behar duten errepide mota guztietarako, trafikoa, eguneko, 2.000 ibilgailutik beherakoa denean.

- Aurrekoa gorabehera, aurretik esku-hartzea izan duten eta egokitu behar diren ardatz edo errepide tartetan mantendu da aurretik dagoen diseinurako irizpidea, diseinuan etenik ez sortzeko.

Esku-hartze intentsiborako (I. motakoa) ezarritako diseinu irizpideak hauek dira:

	AUTOPISTAK ETA AUTOBIDEAK		
	LAUA	2 GALTZADA	MENDITSUA
Bideko sekzioa	7/10,5	7/10,5	7/10,5
Abiadura erorketak	EZ	EZ	EZ
Gehienezko abiadura	120 km. orduko	100 km. orduko	80 km. orduko
Aurreratzearen portzentaia	—	—	—

	INTERÉS OROKORREKO ERREPIDEAK		
	LAUA	ONDULATUA	MENDITSUA
Bideko sekzioa	7/12	7/10	7/9
Abiadura erorketak	EZ	EZ	EZ
Gehienezko abiadura	100 km. orduko	80 km. orduko	80 km. orduko
Aurreratzearen portzentaia	% 80	% 60	% 40


	FORU KOMUNITATEAREN INTERESEKO ERREPIDEAK		
	LAUA	ONDULATUA	MENDITSUA
Bideko sekzioa	7/10	7/9	7/8
Abiadura erorketak	BAI	BAI	BAI
Gehienezko abiadura	80 km. orduko	60 km. orduko	40 km. orduko
Aurreratzearen portzentaia	% 70	% 50	% 30

	TOKIKO ERREPIDEAK		
	LAUA	ONDULATUA	MENDITSUA
Bideko sekzioa	6/7	6/7	6/7
Abiadura erorketak	BAI	BAI	BAI
Gehienezko abiadura	60 km. orduko	60 km. orduko	40 km. orduko
Aurreratzearen portzentaia	% 50	% 30	% 20

Esku-hartze Estentsiborako (E motakoa) diseinu irizpideak hauek dira: bidearen sekzioa handitzeko ingurumenari kalte handirik egin gabe, segurtasuneko arekak ezartzea; trzaduraren zuzenketa puntualak; babes, seinalizazio eta baliak hobetzea; bai eta zoruak sendotzea ere.

ERREPIDE MOTA	ORAINGO GALTZADA (m)	ETORKIZUNEKO GALTZADA (m)	ERREPIDE BAZTERRA		ERREPIDE BAZTERRA
			PISATZEKO		IKUSTEKO
			0,75	0,75	1,20
Tokiko errepidea "en fondo de saco"	3,50 - 4,00	4,50	X	—	—
Tokiko errepidea "en tronco" Erdigunean eta Mendialdean	4,00 - 4,50	5,00	X	—	—
Tokiko errepidea "en tronco" Erribera aldean	5,50 - 6,000	6,00 - 6,50	—	—	X

Ondoko eskema hauetan islatzen dira grafikoki E motako jarduketetarako galtzada sekzio mota guztiak.



13.2. JARDUKETA MOTAK

Sailkapenak lan mota hauek ezarri ditu:

1. Autobia

Trazadura berriko autobiak eraikitzeke jarduketak, galtzada berria sortuz.

2. Galtzada bikoizketak

Jarduketa honek aukera ematen du lehendik dagoen errepide baten edukiera handitzeko, errepide arrunt bat galtzada bereiziko errepide bihurtuz, lehendik dagoen galtzadaz baliatuz.

3. Errepideak berritzeko lanak

Jarduketa mota hau bat dator Intentsibo deitzen denarekin (I mota), funtsezko hiru lan mota barne hartuta:

- Errepidearen zeharkako sekzioa handitzea.
- Errepidearen oinplanoko trazadura hobetzea, lehendik dagoen bide plataforma alde batera utzi gabe guztiz.
- Luzetarako profila zuzentzea aurreko bi kasuak betez.

4. Errepidea egokitzea. Zabaltzea eta hobetzea

Jarduketa mota hau bat dator Estentsibo deitzen denarekin (E mota), eta esku-hartze hauek aurreikusten ditu:

- Oinplantako edo altxaerako trazaduraren zuzenketa mugatuak.
- Segurtasuneko arekak sortzea.
- Zorua sendotzea.
- Babesen, seinalizazioaren eta balizen hobekuntza nabarmena.

5. Herrietako saihesbideak

Ardatz osoko jarduketa orokorrik edo bide berri alternatiborik planteatu ez den errepide arruntetako ibilbideetan, populaziorik bateko hiri bilbean trafikoa sartzeko saihesteko trazadura berria da herriko saihesbidea.

6. Gurutzaguneetako edo lotuneetako aldaketa

Errepide sareko sARBIDEAK, gurutzaguneak edo lotuneak berrantolatzeke esku-hartzeak dira,

ezaugarri funtzionalak eta segurtasuna hobetzeko xedez.

7. Azpiegitura berria

Errepide azpiegiturarik ez zuten tokietan bide-tarteak jartzeko esku-hartzeak dira, adibidez zubi berriak eraikitzea edo bestelako obra nagusien lan osagarriak egitea.

8. Jarduketa osagarriak

Jarduketa osagarriak dituzten lanak dira, hala nola, gurutzaguneak hobetzea, azpiegiturak aldatzea, plataforma handitzea, etab.

9. Zorua sendotzea.

Zorua sendotzeko lanak dira, soilik zoladuri eraginez, baina dranaitze obra osagarriak ere sartu daitezke atal honetan.

10. Konponketarako obra

Azpiegiturak konpontzeko jarduketak (zubiak, tunelak...), berariazkoak eta lokalizatuak.

11. Beste lan batzuk

Araudi berrietara egokitzeko lanak, adibidez, tunelak, Zaratari buruzko Legea, ingurumenaren arloko arazoak zuzentzea (faunarentzako pasabideak...). Era berean, beste alderdi batzuk ere sartzeko dira, azpiegitura handien azterlana edo proiektua, kasu, Iruñeko super-ingurabideak eta Frantzia eta Iruña arteko lotura Luzaiden barna.


14. JARDUKETEN PROPOSAMENA

Egindako diagnostikotik abiatuta eta behin esku-hartze beharrak zehaztuta, esku-hartzeen proposamenak egin dira; funtsean II. Plan Zuzentzailean jaso baina egin gabeko proposamenak dira, eta haiekin batera proposamen berri batzuk, zerikusia dutenak Nafarroaren kanpoko loturekin, ibilbide baten gaineko esku-hartzeari eskakizun handiagoak ezartzearekin, Iruñerriko sarearen funtzionaltasunarekin, eta araudi berrietara egokitzeko helburuarekin.

III. Plan Zuzentzaile honetan sartu beharreko lanak hauek dira:

2009-2016 URTEETAKO III. PLAN ZUZENTZAILEAN SARTU BEHARREKO OBRAK

Autobideak, galtzada bikoizketak, Foru Komunitatearen intereseko errepideak, herrien saihesbideak, Iruñerria




2009-2016 URTEETAKO III. PLAN ZUZENTZAILEAN SARTU BEHARREKO OBRAK
 Autobideak, galtzada bikoizketak, Foru Komunitatearen intereseko errepideak, herrien saihasbideak, Iruñerria

1 Zordia - Olazagutia	38 Variante de Azagra	178 Rotonda de Noain
2 Acceso Sur Altsasu/Alsasua	39 Variante de Milagro	179 Semientlace "Mutiloa"
3 Conexión A-12 con futura A-68 en La Rioja	40 Variante de Valterra y Arguedas	180 Enlace de Estación del TAV
4 Nuevo Enlace de Tafalla	41 Conjunto de actuaciones para la mejora de la funcionalidad (Euga) (NA-138)	181 Enlace Ikastola San Fermín
5 A-15 Límite Provincia Navarra - Tudela Enlace AP-15	42 Actuaciones mejora funcionalidad Auritz / Burguete - Ezcoz - Oñagavía - Isaba (NA-140)	182 Desdoblamiento tramo: San Jorge - Puente de Landaben
6 Tramo 2.2: Enlace Salinas / Idoic - Izco	43 Murillo de Lónguida - Villaveta	183 Desdoblamiento tramo: Variante de Orocyen - Enlace de Arazuri
7 Tramo 3: Izco - Venta de Judas	44 Desdoblamiento tramo Huarte - Egües	184 Rotonda de Huarte
8 Tramos 4 y 5: Venta de Judas - Límite de provincia	45 Conjunto de actuaciones para la mejora de la funcionalidad (NA-150)	185 Reforma Talunxe - Aeropuerto - Noain
9 Enlace de acceso Barásoain y Garinoain	46 Desdoblamiento tramo: Enlace A-68 - AP-68	186 Labiano - Aranguren
10 Intersecciones de Pillas y Murillo el Cuende	47 Accesos Valles Pirenaicos. Reforma Puerto Iso (I) - Ortradre	187 Variante de Eskiroz
11 Variante y mejora intersección de Los Abetos	48 Actuaciones puntuales de mejora del tramo Domeño - Navascués	188 Vial: Autovía Logroño - Zizur Mayor - Eskiroz. Variante de Vial A-12 - Zizur Mayor - Eskiroz. Una calzada
12 Rehabilitación del Puente de Liédena	49 Campanas - Yámoz	189 Vial: A-12 - Zizur Mayor - Eskiroz. Desdoblamiento
13 Túnel de Eiro	50 Cáseda - Carcastillo	190 Puente Barahán - Landaben
14 Túnel de Mezkriz	51 Puente la Reina - Mendigorria	191 Guendulán - Enlace de Arazuri
15 Actuaciones puntuales de mejora de la funcionalidad (N-135)	52 Mendigorria - Larraga	192 Vial RVP8
16 Túnel de Ezkaba - Enlace Orcaín	53 Peralta - Altos de Peralta	193 Accesos Sur a Barahán y Enlace N111 - A-15
17 Variante de Ostiz	54 Altos de Peralta - Andosilla	194 Desarrollo Estudio Previo Super - Rondas de Pamplona
18 Variante de Ostiz - Etulain	55 Venta de Ariás - Marcilla	195 Adecuación de los Túneles de Carretera a la Directiva Comunitaria de Seguridad en túneles. Fase I
19 Variante de Otagüe - Ventas de Arraz (Incluida Vte. de Arratz)	56 Puente de Marcilla	196 Adecuación de los Túneles de Carretera a la Directiva Comunitaria de Seguridad en túneles. Fase II
20 Sunbilla - Etxalar	57 Allo - Sesma	197 Plan de acción de aplicación de la Ley de Ruidos
21 Etxalar - Bera	58 Enlace de Arazuri (A-15) - Etxauri	198 Adecuación de pasos de fauna en infraestructuras en servicio
22 Bera - Endarriatsa	59 Actuaciones puntuales de mejora de la funcionalidad (NA-718)	199 Estudios sobre la conexión Pamplona - Francia por Luzaide / Valcarlos
23 Puente de Endarriatsa	162 Variante de Allo	IP1 Rotonda de acceso al polígono de Rocafort
24 Accesos sur a Bera	163 Variante de Marcilla	IP2 Mejora de conexión con Sangüesa
25 Actuaciones puntuales de mejora de la Funcionalidad (N-121-A)	164 Variante de Sur de Tafalla	IP3 Conjunto de actuaciones para la mejora de la funcionalidad
26 Variante de Iruñita - Elizondo	165 Variante de Ororbia	IP4 Rotonda de acceso a Lumbier
27 Variante de Danbarinea	166 Variante de Corella	
28 Travesía de Danbarinea	167 Variante de Lesaka	
29 Conjunto de actuaciones para la mejora de la funcionalidad (I) (N-240-A)	168 Variante de Ribaforada	
30 Conjunto de actuaciones para la mejora de la funcionalidad (II) (N-240-A)	169 Variante de Cortes	
31 Tafalla - Peralta	170 Variante de Funes	
32 Peralta - Rincón de Soto	171 Variante de Iruñzun	
33 Caparoso - Méida	172 Variante Norte de Estella	
34 Carcastillo - Límite provincia Zaragoza	173 Desdoblamiento: Olaz - Oloqui	
35 Variante de Mendavia	174 Desdoblamiento: Oloqui - Túneles de Ezcaba	
36 Variante de Lodosa	175 Rotonda de Samiguren Fase I	
37 Variante de Andosilla	176 Rotonda de Samiguren Fase II	
	177 Rotonda de Beriozar	

LEYENDA

<ul style="list-style-type: none"> 3 Autovías y-o duplicaciones 16 Reformas de carreteras y-o acondicionamientos 26 Variantes 4 Intersecciones y-o enlaces 13 Nuevas Infraestructuras 	<ul style="list-style-type: none"> 1 Actuaciones complementarias 28 Adecuación de carreteras y-o ensanches y mejoras 194 Varios 12 Obras de reparación IP1 Actuaciones añadidas tras Información Pública
--	---


Número de Actuaciones: 101




Gobierno de Navarra
Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Comunicaciones

III Plan Director de Carreteras de Navarra 2009 - 2016

Título del Plano: **LEYENDA DE OBRAS A INCLUIR EN EL III PLAN DIRECTOR 2009 - 2016**







Empresa Consultora:  Fecha: **2009** Nº Plano: **L 14.1**

2009-2016 URTEETAKO III. PLAN ZUZENTZAILEAN SARTU BEHARREKO OBRAK
Tokiko errepideak







2009-2016 URTEETAKO III. PLAN ZUZENTZAILEAN SARTU BEHARREKO OBRAK

Tokiko errepeideak

60	Caparroso - Traibuenas - Santacara	93	Accesos a Arano	126	Artajona - Tafalla	159	Nueva carretera y nuevo puente en Sangüesa (NA-5410)
61	Arce - Auritz/Burguete	94	Accesos a Arantza	127	Cruce Artajona - Venta de Arlas	160	Puente de Zangitu. Altsasu/Alsasua (NA-2410)
62	Mejora de intersección de Lusarreta	95	Urrotz - Saldías	128	Mendavia - La Barca	161	Enlace de Galar en la A-12-Gazólaz (A-12/NA-7015)
63	Inurita - Eugui	96	Belzunce - Usi	129	Peralta - Funes - Marcilla	IP5	NA-2100. Cruce NA-2101 - Cruce de Imrizaldu
64	Cuatro Bordas - Irati	97	Aristregui - Osinaga	130	Via Romana	IP6	NA-2101. Accesos a Sansoain
65	Iloiz-Garralda. Tramo: Oroz-Betelu - NA-140	98	Jauntsaratz - Beruete	131	Cascante - N-113	IP7	NA-2104. Accesos a Zabalza (Urraul Alto)
66	Cruce NA-150 - NA-2101	99	Accesos a Eltzaburu	132	N-113 - Fitero	IP8	NA-2328. Accesos a Beortegui
67	Accesos al Monasterio de Leyre	100	Gorrontz - Olano	133	Fitero - Valverde	IP9	NA-2331. Accesos a Ardaiz
68	Accesos a Azpa	101	Gulina - Aróstegui	134	Accesos a Ugar	IP10	NA-2333. Accesos a Esnatz
69	Accesos a Mendióroz	102	Valle de Imotz	135	Mejora de accesos al Valle de Yerri por Grocin	IP11	NA-2352. Accesos a Oscáriz
70	Accesos a Yelz	103	Leitza - Goizueta (Mejora de curvas)	136	Irurtzun - Ororbia	IP12	NA-2381. Accesos a Loizu
71	Accesos a Uroz	104	Ollacarizquieta - Nuin	137	Accesos a Zabalza	IP13	NA-4410. Bera - Lizuniaga
72	Accesos a Redin	105	Accesos a Anotz	138	Puente la Reina - NA-700	IP14	NA-5163. Accesos a Sansoain
73	Accesos a Lerruz	106	Accesos a Urdax	139	Puerto de Lizarraga - Arbizu	IP15	NA-6015. Accesos a Biurrun (Ondarra - Sanatorio)
74	Accesos a Irure	107	Carrascal - Verja de Barriain	140	Accesos a Dorrao	IP16	NA-6073. Accesos a Olcoz
75	Accesos a Aintzola	108	Garinoin - Leoz	141	Accesos a Lerate	IP17	NA-7062. Beasoain
76	Accesos a Mezkiartz	109	Pueyo - Alto de Lerga	142	Améscoa Alta	IP18	NA-7063. Eguillor
77	Accesos a Osteriz	110	Accesos a Leache	143	Accesos a Barindano	IP19	NA-7200. Aguilar de Codés
78	Accesos a Ilarratz	111	Accesos a Moriones	144	Accesos a Echávam	IP20	NA-7252. Accesos a Asarta
79	Setoain - Errea	112	Accesos a Amatriain	145	Accesos a Zudaire (colonia escolar)	Número de Actuaciones: 118	
80	Accesos a Akerreta	113	Accesos a Buñuel	146	Accesos a Ecala	LEYENDA  135 Reformas de carreteras y-o acondicionamientos  62 Intersecciones y-o enlaces  86 Nuevas Infraestructuras  60 Adecuación de carreteras y-o ensanches y mejoras  92 Obras de Reparación  IP5 Actuaciones tras Información Pública	
81	Accesos a Cemboraiain	114	Buñuel. Accesos puente	147	Artaza - Urta		
82	Accesos a Unciti	115	Accesos a Gallipienzo	148	Accesos a Baquedano (incluido puente)		
83	Accesos a Najurieta	116	Cáseda - Gallipienzo	149	Accesos a Gollano		
84	Accesos a Alzóriz	117	Mejora del Puente sobre el río Aragón entre Melida y Santacara	150	Accesos a Nazar		
85	Iríso - Tabar	118	Cizur Menor - Campanas	151	Viana - Aras		
86	Puente sobre el río Irati entre NA-150 y cruce de San Vicente (Urraul Bajo)	119	Eskiroz - Noain	152	Accesos a Galbarra en el Valle de Lana		
87	Accesos a Inbuluzketa	120	Noain - Salinas de Pamplona	153	Accesos a Arteaga		
88	Irégi - Urtaun	121	Arlegui - Beriain	154	Accesos a Etayo		
89	Accesos a Usetxi	122	Salinas de Pamplona - Esparza de Galar	155	Oco - Otiñano (p.k. 10,0 a 12,6)		
90	Accesos a Leranotz	123	Beriain - Subiza	156	Accesos a Labeaga		
91	Cascante - Abiltas	124	Accesos a Úcar	157	Accesos a Arbeiza		
92	Mejora del puente sobre la AP-68	125	Carrascal - Artajona	158	Irurtzun - Madotz - Lekunberri		

Número de Actuaciones: 118

LEYENDA	
 135	Reformas de carreteras y-o acondicionamientos
 62	Intersecciones y-o enlaces
 86	Nuevas Infraestructuras
 60	Adecuación de carreteras y-o ensanches y mejoras
 92	Obras de Reparación
 IP5	Actuaciones tras Información Pública


 Gobierno de Navarra Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones		
III Plan Director de Carreteras de Navarra 2009 - 2016		
Título del Plano: LEYENDA DE OBRAS A INCLUIR EN EL III PLAN DIRECTOR 2009 - 2016. RED LOCAL		
Empresa Consultora:  ETT	Fecha: 2009	Nº Plano: L 14.2

**2009-2016 URTEETAKO III. PLAN ZUZENTZAILEAN SARTU BEHARREKO OBRAK
IRUÑERRIA**



IRUDI-TESTUAK


-  Autobideak edota bikoizketak
-  Errepideak erreformatzea edota egokitzea
-  Saihesbideak
-  Elkartuneak edota lotuneak
-  Azpiegitura berriak



Gobierno de Navarra
Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Comunicaciones

**III Plan Director de Carreteras
de Navarra
2009 - 2016**

Título del Plano:
**OBRAS A INCLUIR EN EL
III PLAN DIRECTOR 2009 - 2016**

<small>Empresa Consultora:</small>  ETT	<small>Fecha:</small> 2009	<small>Nº Plano:</small> 14.3
---	-------------------------------	----------------------------------

Autobiak-Galtzada bikoizketak**A-1. Iparraldeko autobia-Lan osagarriak**

1. A-1. Ziordia-Olazti. Jarduketa honek biltzen ditu N-I autobiako Altsasu-Etxegarate tartearen inguruan eginen diren lan osagarriak, edukiera handiko bide honen funtzionaltasunaren osagarri diren zerbitzu eta obra guztiez hornitzeko xedearekin.

2. A-1. Hegoaldeko sarbidea, Altsasu. N-I autobiako Altsasu-Etxegarate tartearen inguruko obra berariazkoa da herri horretako hegoaldeko sarbidea egokitzea, egun trenbidearen azpiko pasabide batean barna egiten baita, zabalera eta altuera baldintza hertsiekin; horretarako, Altsasuko Udala-rekin hitzarmen bat izepetuko da.

A-12. Done Jakue bideko autobia

3. A-12. A-12 eta etorkizuneko A-68 lotzea Errioxan. Jarduketa honetan, Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak izenpetutako hitzarmenari jarraikiz, A-12 autobiari jarraipena emanen zaio Logroño eta Burgoserantz, etorkizuneko A-68arekin eta AP-68arekin, Errioxan.

AP-15. Nafarroako autobidea

4. AP-15. Tafallako lotune berria. Audenasarekin hitzarmena eginda, AP-15aren eta NA-132aren arteko lotune berri bat planteatzen da.

A-15. Nafarroako autobia

5. A-15. Nafarroako muga-Tutera (AP-15 lotunea). Jarduketa hau, Nafarroan, Sustapen Ministerioarekin koordinatuta, Soria-Tutera autobiaren azken tartea da, edukiera handiko ibilbidea, Nafarroa Gaztela eta Leonekin eta Madrilekin lotu eta Foru Komunitateko edukiera handiko sarearen eskema ixten duena.

A-21. Pirinioetako autobia: Iruña-Jaka-Huesca

6. A-21. 2.2. tartea: Getze/Ildozin-Izko lotunea. Eraikitzen ari den tartea, III. plan honetan amaitu beharrekoa.

7. A-21. 3. tartea: Izko-Judasen benta. Eraikitzen ari den tartea, III. plan honetan amaitu beharrekoa.

8. A-21. 4. eta 5. tarteak: Judasen benta-probinzia muga (Zangozarekiko lotura hobetzea barne) (IP2). Jarduketa honekin amaituko da A-21 Pirinioetako autobiaren Nafarroako tartea: Iruña-Zangoza-Jaka-Huesca (N-240 zena). 4. (Judasen benta-Esa) eta 5. tarteak (Esa-Nafarroako muga) eraikitzeko lanak dira. Tarte horiek itzalpeko bidesaria duen emakidaren sistemaz eraiki eta finantzatuko dira, Sustapen Ministerioak Nafarroaren mugakide den Aragoiko tartean egin beharreko jar-

duketarekin koordinatuta. Jarduketaren osagarri da autobiaren eta Zangozako Rocaforteko industrialdearen arteko lotura hobetzeko lana. Aurrekontuan desjabetzeak, obrak eta obra zuzendaritzarako laguntza teknikoa sarturik daude.

Iruña – Ebro harana**N-121. Iruña-Tutera**

9. N-121. Barasoain eta Garinoainera sartzeko lotunea. Bi herrietara sartzeko lotune bat eraikitzeko lanak dira, bi herrien artean. Lotune horrek nabarmen hobetuko ditu segurtasun baldintzak egun dauden gurutzaguneekin alderatuta.

10. N-121. Pitillas eta Murillo el Cuendeko gurutzaguneak. Pitillasko gurutzagunea berrantolatzeko lanak dira, bai eta luzetarako profila eta Murillo el Cuendeko gurutzagunea hobetzekoak ere. Murillo el Cuendeko gurutzagunea eta errepedeko eskuinaldean, Pitillasko errepederako sarreraren aurrean dagoen atsedenekua toki berean daude. Ez du abiadura moteldu eta azkartzeko lerrorik Iruñeko norabidean, eta atsedenekua herrira sartzeko lerrotako erabiltzen denez, mugimenduak nahasi egiten dira.

11. N-121. Saihesbidea eta gurutzagunearen hobekuntza Los Abetos. N-121 errepedean, azken tartean, Los Abetos hostalaren ondoan, bi gurutzagune daude, oso hurbil bata bestetik. Lehena Cadreitara doan NA-134 errepedearekin, eta bigarrena Valtierra doan N-134 errepedearekin eta Castejón eta Madrilera doan N-113 errepedearekin. N-121 errepedearen azken tartean trazaduraren saihesbidea egitea aurreikusi da, bai eta gurutzagune berria egitea ere, maila desberdineko pasabide batekin eta biribilgune batekin, bertan bat egin dezaten lau errepedeek, trafikoa berrantolatu eta banatzeko aukera emanez.

Iruña-Jaka-Huesca**N-240. Iruña - Huesca**

12. N-240. Ledeako zubia berritzea, N-240 errepedearen puntu hertsia hobetzeko lanen artean

Iruña-Frantzia Zubirin barna**N-135. Iruña-Frantzia Luzaiden barna**

13. N-135. Erroko tunela. Jarduketa berri honen bidez N-135 errepedea nabarmen hobetu nahi da Zubiritik Errora bitarte, Erroko mendatea iragateko tunel bat eginez; jarduketa honekin, bateragarriak dira errepede hori egokitze lanak, alde horretako ingurumen baldintzak eta horretarako inbertsio egokia.

